

GUaiXe.eus



Irurtzungo, Lakuntzako, Arbizuko, Urdiaingo, Altsasuko, Olatzagutiko eta Ziordiko herritarrek babestu dituzte galdeketak.

Zazpi herri galdeketen aldeko sinadurak biltzen >>3



Udaletako ordezkariak gobernu ordezkartzaren ondoan eman zuten prentsurrekoa herenegun.

Udalek Bilbora deitu dute >>9



Joanes Bakaikoak bihar debutatuko du, Labriten >>11



Toki erakundeen mapa berrian: Sakana eskualdea >>5



Zama doinuz arinduz kontzertuak Etxarrin >>15

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
ESCUOLA POLITÉCNICA SUPERIOR

MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

INGENIARITZA GRADUETAKO
ATE IREKIAK

GOIERRIKO CAMPUSA

URTARRILAK 19

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

MARTXOAK 4

Larunbata, 10:30 / Areto Nagusia

MAIATZAK 4

Osteguna, 17:30 / Areto Nagusia

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

SAKANA

Herri galdeketen aldeko sinadura bilketei hasiera

Atxikimenduen zerrenda



June Alzelai (Ziordia), Patxi Amillano (Altsasu), Jonan Apaolaza (Urdiain), Anabel Arraiza (Lakuntza), Jon Arretxe (Arbizu), Jorge Azanza (Ziordia), Mikel Azpiroz (Lakuntza), Arantza Berastegi (Irurtzun), Zoila Berastegi (Arbizu), Izaskun Beunza (Olazti), Benjamin Botanz (Olazti), Kristina Fernandez (Arbizu), Tania Ganboa (Lakuntza), Eneko Gartzandia (Olazti), Katrin Ginea (Arbizu), Imanol Goikoetxea (Urdiain), Iñigo Goikoetxea (Urdiain), Luis Igeltz (Lakuntza), Aitziber Iragi (Irurtzun), Txiki Iriarte (Irurtzun), Adelaida Kintana (Olazti), Mikel Lakuntza (Altsasu), Martin Larraza (Lakuntza), Mikel Lasarte (Irurtzun), Hiart Leitza (Arbizu), Ane Lizarraga (Arbizu), Luis Mari Lopez (Altsasu), Karmele Maraño (Arbizu), Youness El Marhoum Rafea (Lakuntza), Alfredo Markinez (Olazti), Joxemi Martis (Ziordia), Itziar Matxain (Irurtzun), Hodei Mazkieran (Altsasu), Jon Morcillo (Olazti), Oskia Ollakarizketa (Irurtzun), Jesus Mari Olmos (Altsasu), Ramon Paniagua (Altsasu), Mikel Reparaz (Arbizu), Nerea Reparaz (Arbizu), Joseba Salegi (Altsasu), Elena Santano (Altsasu), Mikel Saralegi (Irurtzun), Castillo Suarez (Arbizu), Maddi Urria (Irurtzun), Pablo Urtaus (Urdiain), Pili Vicente (Olazti), Enrique Zelaia (Altsasu), Xabier Zelaia (Altsasu) eta Migel Angel Zubiria (Urdiain).

Ekainean Irurtzunen, Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen, Altsasun, Olaztin eta Ziordian erabakitzearen aldeko herri galdeketa burutuko dira. Asteartean herri hauetako Gure Esku Dago taldeetako kideek eta ekimenari atxikimendua eman dioten sakandarrek talde argazkia atera zuten, herri galdeketa babestu eta sinadura bilketak abian jarriko direla adierazteko

Etxarri Aranazko eta Bakaikuko bidari jarraiki, 2017ko ekainean erabakitzearen aldeko herri galdeketa egingo dira Sakanako 7 herri-tan: Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen, Altsasun, Olaztin eta Ziordian. Uharte Arakilen, Arruazun eta Iturmendin ekimenarekin bat egitea aztertzen ari dira. Asteartean ekimena sustatzen duten Gure Esku Dago taldeetako kideek eta ekimenari euren babesa eman dioten sakandarrek agerraldia egin zuten Lakuntzan, herri galdeketei euren babesa azaldu eta herri galdeketa gauzatu ahal izateko aurki aipatu herrietan egin diren sinadura bilketei sostengua emateko.

Ekitaldian Arbizuko Gure Esku Dago taldeko Pello Urzelaik azaldu zuenez, "herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarren garaia da. Erabakiaren aroa hasi da Euskal Herrian, eta herritarrok gara aro horren protagonista. Nola bizi nahi dugun erabaki nahi dugu, mugarik gabe, menpekotasunik gabe. Etxarri

Aranatzen estatus politikoari buruzko lehen herri galdeketa egin zen, herritarren ekimenez, erabakitze eskubidea gauzatu. Hazi hura emankor gertatzen ari da. Bakaikun ere egin da horrelako herri galdeketa, eta laster, askoz herri gehiagotan egingo dira, baita Sakanan ere".

Sinadura bilketetan euren sinadura ematera animatu dituzte sakandarrek

Pello Urzelaik gaineratu zuenez, "adierazpen hau sinatzen dugunok adierazi nahi dugu Sakanan datorren ekainean ildo beretik hainbat herritan egin asmo duten

herri galdekete gure sostengua dutela. Aukera ezin hobea izango dira Sakanako herritarren nahia adierazteko, erabakitzen hasteko". Horrela, aurki Lakuntzan, Arbizun, Urdiainen, Altsasun, Olaztin eta Ziordian herri galdeketa burutu ahal izateko burutuko diren sinadura bilketan euren sinadura ematera animatu zituzten sakandarrek. "Animatu nahi ditugu Sakanako herritarrok herri galdeketa egitearen alde sina dezaten eta prozesuan parte har dezaten. Izan ere, denoi dagokigu etorkizuna erabakitzea. Denon kontua da. Gure esku dago" nabarmendu zuten ekitaldian parte hartu zutenek.

Korrika 20 bitan pasako da ibarretik, bitan gauzez



Bat eta zuk hitzak lotu eta hori da aurtengo Korrikaren leloa: Batzuk. AEK-k lelo horrekin euskarara batzeko deia egin nahi du. Eta gonbidapen hori herriz herri 10 egunez eramanez du Korrika 20k. Martxoaren 30ean, ostegunean, abiatuko da Otxandiotik eta apirilaren 9an despedituko da Iruñean. 2.535 km-ko ibilbidea.

Edizio honetan ere Korrika bitan pasako da Sakanatik. Aurreneko eguna, apirilaren 4ean izanen da, asteartean. 3:14ean Basaburua aldetik Irurtzunera iritsiko da eta handik Etxeberrirantz joko du Zuarrarratetik Lekunberrirantz joateko. Korrika 20 Sakanan sartzen den bigarren aldia ibarra Ziorditik Errotzera zeharkatuko du, euskararen aldeko

lasterkaldiko azken bi egunetan. Apirilaren 8an, larunbatean, 22:00ak aldera iritsiko da Korrika Ziordiarra eta bost orduetan Sakanan zeharkatuko du.

Ordutegiak

Apirilak 4, asteartea	
Herria	Ordua
Latas	2:42
Irurtzun	3:14
Astiz	4:29
Apirilak 8, larunbata	
Araia	21:05
Olatzagutia	22:33
Altsasu	22:57
Apirilak 9, igandea	
Etxarri Aranatz	00:16
Uharte Arakil	01:30
Etxarren	02:32
Errotz	03:02

Altsasuko Burunda frontoian

PORROTX

urtarrilak 15 igandea
11:30ean aldeztu aurretik
sarrerak Iortian salgai
5 eurotara...

sarrerak online lortzeko aukera
www.iortia.com

ETXERRA
#ALTSASUKOAKASKE
MUNTAI-POLIZIALIK EZ STOP MONTAJES POLICIALES

Eraikuntza proiektuak
Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriak
Eraikinak Ebaluatzeko Txostenak
Jarduera txostenak

ARKITEKTURA

mariasunerdozia@gmail.com 665716857
www.mariasunerdozia.wordpress.com
Zugarreta Kalea 36 -1 Esk - ETXARRI ARANATZ



Raf Atxuri

astekoa

Ilbeltza argiz

Euskara Batua taxutze-garaian, 1971ean, hilen izenak erabaki zituzten euskaltzainek eta egun ezagutzen dugun sistema finkatu zuten, eztabaidaz eztabaida eta txostenez txosten. Guaixeren egutegi angarbi nabarmentzen dira aldaera zenbait.

Hala lehen hilabeteari Sakanan, Hegoalde gehienez bezalaxe,

ilbeltza zitzaion eta oker ez banga oraindik ere halaxe zaio bertako hizkeretan.

Ilargi beltzeko edo argi gutxi hila, beraz, Eguberri ondoko hau. Aspaldiko garaietan ez bezala, eta seguruenek hedabideek akuilaturik gero beteko ez ditugun asmo eta helburuak pentsatzeko tenorea dugu honako hau nonbait, baita

“balizkoaldapa” bati ekiteko ere.

Elurra noizetorriko ere egon gaitzke sudurmintzak adi eta belarriak erne, zero beltzari begira, baina izotz, laino eta elurraren gainetik eguna luzatuz doa, pittteka-pitteka bada ere. Otsailaren hasitapenean Andre Dona Agata delata izanen diren ospakizunen peskizan altsasuar kintoak euren

dantza jardunak pinpirintzen ari dira pilotalekuan.

Kabriolak eta zortzikoaren nabarrak airean eta orbain apainak makilen azaletan sutondo aurreko egun hauek igarotzen dira Burunda-Arakil inguru honetan. Bai eta ere lakuntzarren ahosabaiak goxatzen Sansaastin festetako piperropilek emaniko zapo-

reaz, pertza magiko baten zilipurdia irriz gogoratzen dituzten bitartean.

Baina oroz gain aurten gure gogoak Urbasatik behera egiten du, Altsasuko hiru gazte giltzape ulertzen eta zitalean dauden hartaraino. Haienganaino iritsi bedi Sakanari asteotan darion ilbeltzeko argi jostari eta ahaltsua

barrutik kanpora Unea da

Azken urteetako enplegu egoeraren hobekuntza nabaria izan da, bai Nafarroan, baita Sakanan ere. 2016ko urtarrila hasierako datua 1.252 langabetez zena. 2016ko iraila amaieran, aldiz, 1.130. Eta azken datuen arabera, azaroa hasieran Guaixek publiko egin zituen datuak kontutan

hartuz gero, Sakanan 1.029 langabetu genituen. Hauetariko enplegu asko Sakana bertako enpresek sortu dituzte.

Garai hauetan, kanpoko enpresa eta inbertsioa etortzea zaila da, ezjakintasuneko garaiak baitira. Argi dugu! Hala ere, saiatu egin behar da, mentalitate proaktibo eta irekia izanez, eta horretan bai garapenean diharduten eragileen eta udaletxeen ekintza eta akzioetan sinistuz. Prozesu konplexua denez, Sakanako enpresarien ordua ere bada.

Sakanako egoerari eta baita beraien enpresei mesede egingo dien prozesua da. Mentalitate proaktibo eta ireki batez, dituzten mugei aurre egin eta dituzten gaitasunak hobetzeko beste enpresa batzuekin elkarlana sustatzea ezinbestekoa da.

Elkarlana kanporantz eta elkarlana barrurantz, giza baliabideen kudeaketa inklusibo eta parte-hartzaileak sustatu behar dira. Sakanako Garapen Agentziak hainbat saiakera eta egitasmo martxan jarri ditu elkar-

lan hori bultzatzeko; enpresen elkarlanaren onurak ezagutzeko jardunaldi praktikoak antolatuz, baieta kanpoan saltzeko edota berrikuntza prozesuak sustatzeko elkarlanerako sareak eskaini ditu.

Sakandarron, emakumeen eta gizonen, baieta bertako enpresen potentzialtasunak eta grina indartzeko ordua da. Beste batzuetan erakutsi izan dugun moduan, gure buruari erronkak ezarri behar dizkiogu eta izan ditzazkegun aurreiritziak, gaiz-

ki ulertuak eta mesfidantzak alboratu behar ditugu. Enplegua sortuko duten eta bertako enpresek sendotuko dituzten proiektuak diseinatu eta aurrera ateratu behar ditugu. Badaude ekimen interesgarriak ildo horretan, baina gehiago egin dezakegu. Erakutsi dezagun zertarako gai garen, zertarako den Sakana.

Sakana bakarra da, gu gara Sakana. Aurrera, beti aurrera.

Sakantzen Sarea

hara zer dien

Urte berria, gazte politikak indartuak ote

Oporrak eta festak amaitu dira, urte berri baten aurrean gaude eta lanera zein ikastera bueltatu gara. Garaia egokia da urte osorako ilusioak, proposamenak eta plan berriak zehazteko. Horrela, Udaleko Gazteria Zerbitzua ere 2017ko plangintza buru belarri prestatzen ari da. Plana ez da uneko ekintza bat, prozesu iraunkor bat baizik. Dena dela, hilabete hau plana zehazteko une aproposenatariko bat da, batetik iazko betebeharrak, hau da, egin duguna, baloratzen dugulako eta era berean etorkizuneko ildoak finkatzen ditugulako.

Planak, azken finean, Altsasuko Udaleko Gazteria Arloak zehazten dituen politikak islatzen ditu, zerbitzuak dituen giza zein baliabide ekonomikoak, eta dituen ekipamendu eta materiala kontuan hartuta. Era berean,

zailtasunak kontuan hartuta eta batez ere ditugun aukerak eta sendotasunak aprobetxatuz.

Gustatuko litzaiguke aurtengo plana oso parte-hartzaileaz itzate. Hau dela eta, gure ideiak zeintzuk diren aipatuko dizkizuegu, noski, beti malguak eta irekiak direnak, zuen ekarpenen zain. Programek ondoko gaiekin zerikusia dute: prestakuntza enpleguari lotuta, parte-hartzea, sozio-ekonomia eta ingurumen heziketa, sexualitatea, euskara, hezkidetzak, piperoak, interkulturalitatea, Erasmus+, teknologia berriak, Gu Geu Gazte programa (ahalmen bereziak dituzten gazteak), aisialdia, gelak eta materiala uztea; urtebetetzeak, merendolak eta afariak egiteko aukera, ikasteko eta musika entseguak egiteko aukera, ziber gela eta abar.

Plangintza honek, gazteek dituz-

ten zailtasunak zein arazoak ez dituela konpontzen jakitun gara, baina ziur gaude lagungarria dela herriko gazteen parte-hartzea indartzeko eta baita bizitza kalitatea hobetzeko ere.

Gazteen parte-hartzeak itzaleko garrantzia eta balorea dauka. Horrexegatik eskertuko genizuke, zuen, gazteen proposamenak jasotzea. Bai beste programa motei buruzkoak, bai ekintza konkretuei buruzkoak, plana zuen beharren eta iradokizunen arabera ahalik eta egokien garatzeko asmoz. Horretarako, jarri gurekin harremanetan:

WhatsApp (608 617 7778), telefonoa (948 564 785) // intxostiapunta@altsasu.net eta gazteria@altsasu.net.

Altsasuko Udal Gazteria Zerbitzua

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingo dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko

hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

objektibo tik



Izotzetatik urak gainezka egitera: Izotzreak eta hotza izan dira Eguberrietako protagonistak. Aspaldiko partez, ibaia ere izoztu egin zen tarte batzuetan eta -8,63 grado neurritu zituzten Etxarri Aranatzan. Euririk gabe luze egon ondoren, astelehenean hasi eta etengabean aritu zen, ibaia gainezka egiteraino. Eta elurra omen dator... Nonbait negu gorria, aurtengoa.

objektibotik: gutunak@guaixe.net

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILA: Ruben Imaz Alcaide • maketazioa@guaixe.eus
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
 eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus

ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Jon Otermin Benito
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILA: Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Goizeder Anton Iturralde • fundazioa@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: GK• Ainhoa Etxeberria Pikabea • gk@gkomunikazioa.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • admin@guaixe.eus
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
 s a k a n a

Nafarroako  **Gobernua**  **Gobierno de Navarra**

BELENZALEEN ZOZKETA: Ilbeltzaren 8an itxi zituen atea Sakanako Belenzaleen Elkartean jaitza erakusketa. Olatzagu-tiako erakusketatik pasa diren askok, la-

guntza moduan, zozketarako txartela erosi zuten. Jaitza txiki baten zozketa egin du elkarteak, 226 da zenbaki saritua.

sakanerria >>

SAKANA

Autonomoen lanaz ariko dira jardunaldi batean

Heldu den asteko ostiralean, 11:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Nafarroako Lan Autonomoaren Plana, 2017-2020 aurkeztuko dute Altsasun hilaren 20an. Plana jasozten duen dokumentuak 57 neurri biltzen ditu, indarrean dauden batzuk eta berriak. Plan egingarria eta erabilgarria izan nahi du, guztia langile autonomoaren lan baldintzak hobetu, lan autonomia sustatu eta egonkortzeko izan daitezkeen.

Izan ere, Nafarroako Gobernuak autonomoen lana aztertu eta hainbat ikuspuntutatik esku hartzea erabaki du. Horretarako, Lan Autonomoaren Nafarroako Kontseiluaren elkarlan eta adostasunarekin landu du plana foru administrazioak. Nafarroako

Gobernuaren Enplegu Zerbitzuak, Cederna-Garalurrekin batera, antolatu dute aurkezpena eta hara joaten direnekin zuzeneko harremana izateko aukera eskaini nahi du. Kriariaren eragina, administrazioendako dituzten eskaerak, autonomoen beharrak eta gabeziak, autonomoen elkar-teeak nola eragin dezaketean, plana nola aberastu daitezkeen eta beste hainbat gai landuko dira aurkezpenaren akaberako solasaldian.

izen ematea

Doakoa da baina alde zurreratik <https://gobiernoabierto.navarra.es/es/participacion/encuestas/1645/inscripcion-presentacion-del-plan-del-trabajo-autonomo-navarra> helbidean eman behar da izena.

SAKANA

Sakana, eskualdea



Populazioaren arabera osatzen da Mank-eko batzarra. Herri bakoitzak ordezkari bat ziurtatuta du.

Nafarroako Tokiko Maparen erreformaren zirriborroan aurreikusten diren 13 eskualdeetako bat Sakana da. Udalak eta kontzejuak mantentzen dira, baina mankomunitateak desagertu egiten dira

Aspaldikoa da Nafarroako toki administrazioaren mapa, udal mapa, berrantolatzeko asmoa. Toki Administrazioeko Departamentua eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioa joan zen urtean gaia lantzen hasi ziren. Honako helburuak dituzte: lurralde- eta gizarte-alorreko kohesioa sortzea, autonomia bermatzea eta tokiko boterea indartzea behar besteko finantza-mailari eutsiz, bai eta herritarrentzako zerbitzuen prestazioan efizientzia lortzea ere.

Urte beteko lanaren ondoren sortutako zirriborroan Nafarroa udalez gaindiko 65 mankomunitateren ordezkari 13 eskualdetan banatzen da. Haietako bat Sakana da. Garagarrila bitartean zirriborro horren gainean lanean ariko dira gobernuak, federazioa eta toki erakundeak. Eztabaidaren bigarren fasea aste honetan bertan hasi da. Foru geografian barna lau bilkura egin dira. Eta bi aste barru beste zortzi bilera egingen dira. Gobernuak 2018rako legea onartzea nahi luke.

Onartutako zirriborroan jaso-

tzen denez, udal bakoitza eskualde bakarrek kide izanen da, eta horrela ez da hainbat mankomunitateko kide izanen. Udalez gaindiko kudeaketa hobea izan ditzaketen hiru zerbitzu bateratzea proposatzen da zirriborroan: ura, hondakinak eta gizarte zerbitzuak. Hortik aurrera eskainitako zerbitzuak nahi beste zabaldu litzake eskualde bakoitzak, esaterako, kale garbiketarako zerbitzu komuna ezarri. Bestalde, finantzaziorik dagokionez, Nafarroako aurrekontuaren %10 udalei zuzenduta izatea nahi dute.

Ibarra

Zirriborroan jasotakoak Sakanan eragin gutxi luke, ibarreko erakunde mankomunitate izena izatetik eskualde izena hartzera pasako litzatekeelako. Izan ere, gaur egun Sakanako Mankomunitateak honako zerbitzuak eskaintzen ditu ibar guztirako: euskara, ura (lau udal kanpo daude), hondakinak, kirola, etxebizitzak zaharberritzeko bulegoa eta immigrazioa. Horretaz aparte, Mank-ek sustatutako Sakanako Garapen Agentzia dago.

Zirriborroan jasotzen denaren arabera gizarte zerbitzuak dira gaur egun Sakanan ibar guztirako Mank-etik kudeatzen ez diren bakarrak. Gaur egun arlo

horretan Irurtzun, Etxarri Arantzeta Altsasu aldeko mankomunitateak daude. Hirurak batzeko ahalegina egin zuen Migel Anjel Zubiriak, Mank-eko presidente izan zen 2007-2011 legegintzaldian. Baina Irurtzun aldeko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea osatzen duten udal batzuen zalgintzengatik ez zuen aurrera egin. Mankomunitate hori Arakil, Irurtzun, Irañeta, Uhartea Arakil eta Arruazuz aparte, Araitzek, Beteluk, Lekunberrik, Larraunek, Imotzek eta Izak osatzen dute. Sakanakoak ez diren udalak zalantzak zituzten, ez ziren fio, sakandarrek pisu gehiago izanen zutelazioten.

Zirriborro dagoen eran onartuko balitz Irurtzun aldeko gizarte zerbitzuetako egungo eremua hiru eskualdetan banatuta geldituko litzateke: Mendebalde (Araitz, Betelu, Lekunberri eta Larraun), Ibarak (Imotz eta Iza) eta Sakana (Arakil, Irurtzun, Irañeta, Uhartea Arakil eta Arruazu). Hiru mankomunitateak batuko balira, langileriarekin zer gertatuko litzatekeen ongi aztertu beharko litzateke.

Sakanaren datuak

Populazioa 2016an: 20.255
Azalera km²: 306



Trafikoak 4 hildako utzi zituen 2016an



Nafarroan 25 izan ziren hildakoak, %16 ibarrean

Sakanan izandako zirkulazio istripuetan lau pertsona hil ziren joan den urtean, bi oinezko eta auto eta motor gidari bana. Nafarroako hildako guztien %12 sakandarrak ziren, herrialdeko populazioaren %3,16 besterik ez garenean. Ilbeltzaren akaberan auto batek Etxarritik Arbizurantz oinez joaten zen gazte bat arbizuar harrapatu eta hil zuen,

gidariak ihesari eman zion. Otsaila hasieran Burlatako gizon bat autoarekin bidetik atera eta Aizkorbeke etxe baten kontra jo ondoren hil zen. Martxo hasieran, berriz, Etxarri Arantzeta erdigunean auto batek herriko andrea harrapatu eta hil egin zuen. Azken ezbeharrak Lakuntzan gertatu zen agorriaren erdialdean, motor batek eta furgoneta batek talka egin eta motor gidari lakuntzarra hil zen.

CITROËN C3 BERRIA AS UNIQUE AS YOU ARE

ConnectedCAM Citroën™
Pertsonalizazioak 36 nahasketak
Citroën Advanced Comfort®



CITROËN prefiere TOTAL. KONTSUMO MISTOA (L/100 KM) / CO₂ ISURIA (G/KM): CITROËN C3: 3,2-4,7 / 83-109

facebook twitter youtube googleplus citroen.es

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com

» Lakuntza

San Saastinak festa egutegia musteko

Sakanako herrietako festen egutegia ihabardarren abenduaren 26an Doneztebe ospatuz itxi zuten eta hiru asteren ondoren ibarreko aurtengo lehen festak hemen ditugu: Lakuntzako San Saastinak. Heldu den ostegun arratsaldetik igandera festa giroa nagusi izanen da Lakuntzan. Fuerte hasten dira lakuntzarrak festarekin, piperropil lehiaketa eta danborrada-rekin. Hurrengo egunean ermitan elkartuko dira eguerdian. Arratsalde danborrada txikia-

ren eta Alkate-dantzaren txanda izanen da. Asteburu jendetsua

Egitaraua

» Ilbeltzak 19, osteguna

18:00etan Txupinazoa.

18:30ean Txapelketan parte hartu behar duten Piperropilak udaletxean utzi.

18:30ean Txokolate-jana, gurasoek emana.

19:00etan Piperropil txapelketa.

19:30ean Buruhandiak.

20:00etan Auzatea.

20:00etan Dantzaldia Elebitan taldearekin.

21:00etan Zezensuzkoa.

00:00etan Danborrada plazan.

* Festak igandera arte luzatuko dira.



Ostegun gauetan danborra egoki jotzeko entseatzan hasi dira.

espero da eta bisitariak hartzeko egitarau oparoa prestatu du uda-

lak, zeinetan ez den dantzaldirik, zezenzuskorik edo kirolrik falta.

» Altsasu

Sexu indarkeriagatik atxilotuta

Iruñeko Emakumeenganako indarkeriaren kontrako auzitegiak 40 urteko altsasuar bat bilatzeko, atxilotzeko eta epaitegira eramateko agindua eman zuen. Izan ere, epaitegiak emakume sakandar baten ganahurbiltzeko eta harrekin harremanetan jartzeko debekua jarri zion. Foru poliziak jakinarazi duenez, abenduaren 31n atxilotu zuten eta epailearen aurretik pasa ondoren aske gelditu zen. Foruzaingoak jakinarazi duenez, gizona dozena bat aldiz atxilotu dute, gehienetan tratu txarregatik.

» Olatzagutia

Ihote lan taldea sortu da

Gaur, 19:00etan, kultur etxean elkartuko da. Tailerrak eta hitzaldiak antolatu dira ere

Olatziarrek herri-ihotea berreskuratu zutela 25 urte bete dira aurtten. Hori dela eta, Olatzagutiko Udalak herri osoa ihoteetan parte hartzerantz animatu nahi du, "gure herriko kulturaren zati garrantzitsu hau ezagutu, maitatu eta bizirik mantentzeko". Horregatik, Ihote lan taldea sortu da eta aurreneko bilera gaur izanen du, 19:00etan, kultur etxean.

Olatzagutiko Udaleko Kultura Zerbitzuak herri-ihoteari begira bi tailer antolatu ditu. Bata, iratxo jantzia eta nesken kapela egiteko da. Jantzia egiteko udalak zakua jarriko du eta kapela egiteko norberak bere materiala eraman behar du. Bi txandatan egingen da familiei zuzendutako tailer hori: 9 urtetik beherako



Zamarrandiak aurrera eta atzera ibiliko duten gurdiaren bueltan.

neska-mutilendako, ilbeltzaren 31n eta otsailaren 7an, asteartean, 16:30etik 18:30era izanen da tailerra eta 9 urtetik gorakoendako saioak ostiraletan izanen da, otsailaren 3an eta 10ean, ordutegi berean. Akelarreludotekan izanen da.

Beste tailerra Olatzagutiko Zortzikoa ikasteko izanen da. 13 urtetik gorakoek eman dezakete izena kultura@olazti.com e-postan edo 699635187 telefonoan (deia edo Whatsapp). Horretarako, hila-ren 24ra arteko epea dute. Tailer-

erakusketa >

Herri-ihoteei buruzko argazki erakusketa ere antolatu nahi da. Horregatik, Kultura Zerbitzuetik olaztiarrei argazkiak udaletxera eramateko gonbidapena egin die. Argazkiak udaletxean eskaneatu, digitalizatu eta momentuan bueltatuko dizkiete. Euren argazkiekin erakusketa osatu nahi dutenek otsailaren 10era arteko epea dute.

Hitzaldiak >

Gure ihoteak ezagutzen izenburuko bi hitzaldi emanen ditu Adelaida Kintanak. Euskaraz, otsailaren 17an, ostiraletan, 19:00etan. Gaztelaniaz hurrengo egunean ariko da, ordu berean. Biak kultur etxean.

rra ilbeltzaren 28an eta otsailaren 11n izanen da, larunbatetan, 11:00etatik 13:00etara, Sutegi gimnasioan.

» Oyarbide Madrilgo 10 jatetxe onenen artean

Anatomia del gusto blogeko zuzendari Jesus Andreuk, gaur egungo Madrilgo hamar jatetxe onenen sail-



kapena argitaratu du. Haien artean Carlos Oiarbideren Oyarbide jatetxea dago (www.carlosoyarbide.com). Blogariak azaltzen duenez, "lokalaren iluntasunak Carlos Oiarbideren sukaldaritzaren argitasunarekin kontrastea egiten du. Oiarbide txef nafarren kasta garrantzitsu eta historikoan nabarmendu egiten da. Madrilgo lokal berrien sukaldaritzak lasai eta elegantea, diskretuki berritua, praktikatzen eta gauzatzen du".

» Altsasu

Santa Ageda, gertuago

Ostiraletan aukeratu zituzten aurtengo kintako errege-erreginak: Iñigo Plaza Reyes eta Eider Arakama Madina errege-erreginak; Igone Augusto Fernandez eta Manex Goikoetxea Presa arduradun ordeak dira

Ohi denez, errege egunarekin batera, Altsasuko udaletxeak aurtten 18 urte beteko dituzten gazteak hartzen ditu. 1999an jaiotako 66 neska-mutil dira aurtengo kintak osatzen dutenak. Ohi bezala, alkateak, Javier Ollo Martinezek, kartak banatuz aukeratu ziren kintadako arduradunak. Nesken artean, lehenik, eta guztiei bitan banatu ondoren atera zen aurreneko erregea, Eider Arakama Madinak erakutsi zuena. Bigarrena, Igone Augusto Fernandez eskutan agertu zen. Mutilen artean karta ugari banatu behar izan zituzten erregeak aukeratzeko: Iñigo Plaza Reyes eta

Manex Goikoetxea Presa.

Laurak buru dituztela, guztien artean antolatuko dituzte Santa Ageda ospakizunak. Aurtten otsailaren 5a igandea denez, bost egunetako ospakizunek ez dute larunbatik hartzen. Hain zuzen ere, larunbatetan herriko gainontzeko kintadak festara batzen dira. Hori horrela izateko honako festa egutegia onartu dute: domekan eta astelehenean euren festa ospatuko dute, asteartean eta asteazkenean, kintoek atsedean hartuko dute eta ostegunetik larunbatera arte segituko du ospakizunak.

Bitartean, guztiek dantzatu beharreko zortzikoa, baita jota eta porrusalda ere, astelehenean hasi ziren ikasten. Astegunetan, 21:00etatik 22:00etara, Burunda pilotalekuan Andoni Beramendi eta Txetxu Claver dantza irakaslearen esanetara ari dira.

1999ko 66ak



Iñigo Plaza Reyes eta Eider Arakama Madina errege-erreginak, Manex Goikoetxea Presa eta Igone Augusto Fernandez arduradun ordeak eta beste 65 gazte osatzen dute kintada: Patxi Lopez de Goikoetxea Mazkiaran, Gorka Ansa Claver, Iñaki Bengoetxea Urdaniz, Eneitz Aldaz Gomez, Aitor Bengoetxea Larunbe, Irene Ruiz de Eguino Cerezo, Iban Arevalo Alonso, Naiara Urkijo Zarrantza, Maite Martinez Marquez, Irantzu Berasategi Mendinueta, Idoia Granizo Uribarrena, Sergio Nuñez Hernandez, Xabier Claver Ruiz de Eguino, Ane Plissonneau Arakama, Iñaki Rubio Mendoza, Ane Insausti Gomez, Izaskun Rojo Ubeda, Ines Moreno Sanchez, Miriam Gonzalez Palop, Nora Paredes Lasheras, Eva Zulaika Perez, Andrea Mendoza Caro, Maitane Zabalza Lopez de Goikoetxea, Naroa Lizarraga Goikoetxea, Irantzu Arrieta Lobo, Ainhoa Llamas Fernandez, Jone Arnedo Solis, Aintzira Goikoetxea Aldasoro, Azucena Martin Alves, Ayeisa Moran Garcia, Naroa Cancho Rodriguez, Marta Ezeolaza Etxeberria, Imanol Puerta Arrondo, Jon Paredes Lanchas, Xabier Claver Zabala, Julen Domingó Branchadell, Branian Alejandro Ruiz Londoño, Eloy Gabirondo Camuel, Asier Jorge Aristorena, Yaiza Salgado Gomez, Iruña Grados Iriarte, Usua Bergara Fresneda, June Otxoa de Eribe Oiarbide, Imanol San Miguel Jimenez, Amaia Karasatorre Claver, Iñaki Lopez Sanchez, Aitor Cantero Crespo, Jonan Zelaia Jimeno, Oihan Vinagre Diego, Unai Alaba Gracia, Unai Urrestarazu Cerdan, Hodei Zia Lopez, Ekai Urkijo Nuñez, Jon Insausti Gomez, Joseba Fernandez Vilariño, Aitor Calleiras San Roman, Ander Hormeño Ziordia, Hasier Galarza Pozueta, Esti Fernandez Artigas, Andres Moro Uhartte, Aitziber Grados Muñoa eta Mikel Martinez Solis.

SAKANA

Beleixeguaixe txartelak eguberritako sariak banatu ditu

Eguberri garaia maki-na bat eros-keta egiteko erabiltzen dugu. Haiek Sakanan egitea sustatu nahian Guaixe fundazioak pizgarriak eskaini nahi izan dizkie bere 1.500 bazkideei: Beleixeguaixe txartelarekin abantailak eskaintzen dituzten ibarreko 80 establezimenduetan baino gehiagotan eguberrietan erosketak egindakoen artean 30 euroko hiru erosketa txartel zozketatzea. Eskaintza bere egin zuten bazkideek eta erosketa egin ondoren euren datuekin parte-hartze txartelak bete zituzten. 195 txartel jaso dira Sakanan barnako establezimenduetan. Beleixeguaixe txartelarekin abantailak eskaintzen dituzten establezimenduetan 30 euro gastatzeko txartela eskuratu duten bazkideak: Mari Cruz Mundiñano Oraien, Alberto Lorea Gonzalez eta Itziar Flores dira.



SAKANA

Hondakinen faktura, partzuergoaren hobariarekin

Mank-en eskaera onartuta, atez ate hondakinak kudeatzen dutenen faktura %8 jaitsiko da eta konposta egiten dutenena %1

Sakanako Mankomunitateak hondakinak biltzeko sistema berria 2013an ezarri zuen. Nafarroako Hondakinen Partzuergoa ibdarrean jasotako hondakinak kudeatze-azarduraz den erakundea da eta Mank 2013tik sortutako hondakin kopuruaren arabera ordaintzeko eskatudio, behin eta berriro. Gehiago birziklatzen dutenek gutxiago ordaintzeko hain zuzen ere.

Sakandarron hondakinen faktura bi erakunde ordaintzeko da. Alde batetik, Mank-i hondakinak jasotzeagatik (%67) eta, bestetik, partzuergoari hondakinak trata-

tzeagatik (%33). Ibarreko erakundeak bere fakturaren zatian %15eko hobaria ematen zien auzo-konposta edo auto-konposta egiten zutenei. Partzuergoa bide horretan urratsak ematen hasi da: hondakinak auzo-konpost edo auto-konpost sistemekin kudeatzen duten herritarrendako %25eko hobaria aurrekusi du eta atez ateri direnendako %20koa. Partzuergoaren hobariak indarrean sartu direnez, Mank-ek bereak kendu ditu. Ondorioz, atez ateko sisteman izena emandakoek hondakinengatik %8 gutxiago ordainduko dute aurten eta materia organikoa konpost bidez kudeatzen dutenek %1 gutxiago.

Tasak	2016	2017	Aldea
Bilketa sistema / urtea			
Auto- eta auzo-konposta	104,97	103,74	-%1
Atez ate	115,32	106,06	-%8
5. edukiontzia	115,32	106,06*	?
Mistoa	104,94	103,74	-%1
Altsasu / Irurtzun	115,32	115,32	=

*Inpropioen arabera %0 eta 15 hobaria eta %5 errefusa.

Altsasun informazio kanpaina

Mank-ek eta Altsasuko Udalak hitzarmena sinatu dute herrian materia organikoa jasotzeko 5. edukiontzia, marroia, jartzeko. Erronka urteakaberarako Altsasuko birziklatze tasa %65era igotzea da. Gaur egungo tasa %27koa da. Hau da, emaitza horiek lortzeko Altsasuko 2.268 etxeen %60ak egin beharko luke bat sistema horrekin. Mank-ek bi hilabetedarama Altsasun informazioa ematen eta oraingoz soilik 41 etxebizitzetan eman dute izena 5. edukiontzia erabiltzeko.

Baratzeko bide plazan dagoen lokomotora informazio bulego bihurtu da. Astelehenero, asteazkenero eta ostiralero 5. edukiontzia iruzko azalpenak jasotze-



ko aukera dago, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Era berean ezarpenari buruzko xehetasunak 900 730 450 doako telefonoaren bidez jasotzeko aukera dago. Mank-en altsasuarrekin harremanetan jartzeko beste bideak aztertzen ari dira.

3.954 Tona

Sakanatik hondakin kopuru hori eraman da Tuterako Culebrete hondakindegira. Horregatik pagatzen zaio, besteak beste, partzuergoari. 3.954 tonetatik 2.520 Irurtzun eta Altsasun jasoak daude. Bi herri horietan hondakin bilketa eredu aldaztearekin batera birziklatze tasak gora egiten du.

Olatzagutia

Ornitologia erakusketa arrakastatsua

Aralar mendia Ornitologia Elkarteak antolatuta hegaztien aurreneko erakustaldi eta truke jaialdia egin zen domekan. 9:00etatik 14:00ak bitartean jendea etengabe pasa zen Olatzagutiko udal pilotalekutik. Kantxan barna zabalduetako mahaietan Burgostik, Soriatik, Errioxatik, Iruñetik, Gasteiztik eta Gipuzkoatik 39 erakusketarikuaren hegaztiak ikusgai jarri zituzten: kanarioak, txorru arruntak, agaporniak, loroak, *diamante de gul*, Jabea txolarreak, eta bestelako txoriak ikusi eta entzuteko aukera izan zen, bertakoak zein exotikoak.

Haiek hegaztiak saldu, trukatu eta topaketak erakarrirako jendeari azalpenak eman zizkieten. Antolakuntzan ibilitako Sergio Floresek azaldu digunez, "garai honetan nik badakit ditudan hegaztietatik

zein haziko dudan eta zeinek kendu nahi ditudan. Eta azken horiek dira halakoetan saltzea eraman direnak".

Floresek azaldu digunez, domekan hegazti truke eta salmenta handia egon zen. Alde horretatik, pozik zeuden antolatzaleak baita izandako bisitarien kopuruarekin ere. Beste elkarteetako kideak ere pozik zeuden, espero baino hazle gehiago opatu zituztelako eta antolakuntzarekin pozik. "Aurten bosgarren edizioa izan duen Langraitz Okan baino hobe dago, hemen frontoiak berogailua duelako eta han nork bereak eraman behar duelako. Baina, gainera, Olatzagutira baino hazle gehiago etorri dira". Urtero errege egunaren ondoko domekan antolatzeko asmoa dutela esan digu Floresek, 2017an, apika, ilbel-



Ornitologia zaleen hegaztiak begira.

tzaren 14an izanen da.

Lekukotza

Burgosko txori hazle batek ziurtatu zigunez, "txoriak haztea dirua galtzea da". 80 euroko balioa zuen Diamante de gul txoria 15 eurotan saltzeko prest zegoen. Burgosdarrak azalduetakoaren arabera, "gustura ibiltzen naiz. Lekua behar da,

baina arazoa da gero zer egin hainbeste txoriekin". Ingalaterratik ekarritako txori batzuk zituen Olatzagutian: "zaletasun hau baduzu, bidaiatu behar zara, asko. Andaluzia oso egokia da txori asko baitaude, liburu asko irakurri behar dira ere genetikatik, beste ezagutzen artean, ikasteko eta ezagutzeko". Diru asko gastatu omen ditu liburuetan.

Elkartea >

Aralar mendia Ornitologia Elkarteak 2012an du sorburua. Urte hartan Almeriak Munduko eta Espainiakotxapelketak hartu zituen. Ornitologian zaletuak hara joateko bidaia antolatu zuten eta bidaia hartan sortu zen elkarte eratzeko ideia. Irabazi asmorik gabeko elkarteak, ornitologia zaletasuna partekatu eta hura seriooki eta era antolatuan sustatzeko helburua du. Gipuzkoa eta Nafarroa lotzen dituen Aralar mendiaren izena hartu zuten elkartearen izenerako.

www.soalar.es

web orriaren bidez jarri daiteke elkartearekin harremanetan.

Iturmendiko Udala

HIRI JARDUERAKO PLAN BEREZIA
2. POLIGONOKO 439. LURZATIAN.
HASIERAKO ONESPENA

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 74. artikuluan xedatua betetzearren, Udalak honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste, 2016ko abenduaren 15eko osoko bilkuran:

1. Hasiara batez onestea hiri jarduerako plan berezia 2. poligonoko 439. lurzatian, Borja Martinez de Ordoñanek sustatua.
2. Jendaurrean edukitzea hilabetez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Nafarroan editaturiko egunkarietan argitaratuz, interesdunek espedientea aztertu eta erreklamazioa kexa edo oharrak aurkez ditzaten.

Iturmendin, 2016ko abenduaren 15ean.
Alkatea, Victoriano Gabirondo Lanz.



Iturmendiko Udala

nereacnoz
nutrición

Giza Elikadura eta Dietetikan Diplomatuak (Nafarroako Unibersitatea)

info@nereacnoz.com
nereacnoz.com

Informazio gehiago 654 910 289 telefonoan
Estafeta 16, atzea · Lakuntza
(Bostekoa masaje zentroan)

Pisua kontrolatzeko dietak:

- Argaltzeko dietak
- Pisua hartzeko dietak
- Mantentimendu dietak
- Haurdunaldi-dietak

Patologia ezberdinetarako dietak

- Kirol-elikadura
- Elikadura arazoak
- Nutrizio-hezkuntza

minaren kontrako masaje geotermala

Olga Martínez de Lagrán
PSIKOLOGIAN DOKTOREA

639 408 118
Minaren tratamendua:
fibromialgia, artritsa, buruko minak, antsietatea, depresioa

» Altsasu

Auzipetuen egoera salatzeneko auto-karabanak



Madriden elkartasun kontzentrazioa egin zuten. Bakaikun, giza-katea.

Bihar bi hilabete beteko dira Guardia Civilak Altsasun sarekada egin zuela. Orduetik hiru gazte altsasuar Madrilen preso daude. Eta, haiekin batera, aske dauden beste zortzi gazte ferietako liskaragatik auzipetuak, “dena muntai-polizial anker baten ondorioz”. Atxiloketak izan ziren hileko egunarekin batera, 14an, salaketa ekimenak egitea erabaki zuen herri-askanbladak. Gazte horien egoera salatzeneko auto-karabanak egingen dituzte.

Herri-askanbladak Altsasuko Suhiltzaileen parke pareko apartamentuak jarri du hitzordua bihar, 11:00etan. Han elkartzeko dire-

nek zein norabide hartuko duten zehaztuko dute. Salaketa hiru auto-karabanen bidez egingen dute. Arabako Lautada, Gipuzkoako Goierri eta Sakana zeharkatuko dute ibilgailuek.

Antolatzaileek Espainiako Gobernuak Iruñean duten ordezkari baimena eskatu dute. Baina salatu dutenez, “baimena jaso genuenetik arazoak besterik ez ditugu izan: ezin dela klaxona erabili, ezin dela kotxerik gehitu ibilbidean, beti ere polizia-ibilgailua aurretik izan behar dugula eta bestelako aitzakia txatxuak bildu ditugu euren oharretan”. Kezka dute isunen bat jasoko ote duten

Sare sozialetan

Twitter: @EntzunAltsasu
Facebook: www.facebook.com/EntzunAltsasu-1776451475941595/

Porrotx

Pailazo ezaguna domekan, 11:30ean, Altsasuko Burunda pilotalekuan izanen da, herri-askanbladak antolatutako ekitaldian. Sarrerak, 5 eurotan, Iortia kultur gunean edo www.iortiakultura.com web orriaren bidez erosteko aukera dago.

edo, azken unean, ekimena debekatatu nahi izanen ote duten.

»

Elkarteen elkartasun bazkariak

Hilaren 221ean 666 bazkari eman dituzte ferietako liskaragatik auzipetutakoekin elkartasunez. Elkarteetan izena emateko azken eguna gaur da, 15 euro balio du txartelak. Toki gutxi batzuk gelditzen dira.

Altsasuko zazpi gastronomia elkarteak (Amandrea, Beti Iaten, La Encina, Lagun Onak, Otai, Zubeztia eta Zubiondo) “gure herrian eman den injustizia ikaragarriaren ondorioz gure isiltasuna apurtzera behartuak izan gara, egoera honen aurrean gure ezinezona eta haserrearen jendeak ikus dezan. Eta, bereziki, egoera honekin bukatzeko baliabideak

eta tresnak dituztenenganaino ailegatzea nahiko genuke”.

Liskararen ondoren hedabideak “gure herriari buruz emandako irudiaz dator errealitatearekin bat; Altsasu herri plurala da, langilea, alai, sortzailea eta solidarioa. Existitzen ez den gorroto bat sortu nahi dute, horren aurrean, guk ez dugu gorrotoa sortu nahi, guk herria egin nahi dugu”. Horrekin batera zazpi gastronomia elkarteek sufritzen ari diren 11 familiei “elkartasun osoa” adierazi diete: “haien seme-alabak kriminalizatuak eta espetxeratuak izan dira, haietako 3

oraindik espetxean segitzen dute ihes egiteko arrisku oso handia dela egotzita, nahiz eta boluntario-ki aurkeztu diren epailearen aurrean, kasu batean hiru aldiz”.

Egitaraua

13:00etan Elkarte guztien agerpena Foru plazan, Gure Etxea eraikinean edatekoak eta pintxoak zerbitzatuko dira. Ondoren herrian barna kalejira.

15:00etan Elkarteetan bazkaria

19:00etan Foru plazan elkartu, poteoa eta musika.

Gauean Gure Etxea eraikineko beheko solairuan barra zabalik eta disko-jartzailea ariko da



Zubeztian basurde kalderetea prestatuko dute. Txartel gutxi falta dira saltzeko.

SAKANA

Idiazabalek bost gaztandegiri aitortza

Ordiziko eguberritako ezohiko feria baliatuz, Idiazabal jatorri izendapenak nazioarteko lehiaketetan saria lortutako gaztandegien aitortza egin zuen. Izendapeneko Kontseilu Arautzaileko Presidente Jose Mari Ustarrozek saritutako gaztandegiek izendapenaren eta Idiazabal gaztaren zabalkundeari egiten dioten ekarpena eskertu zuen.

Joan den urtean 54 gaztandegiri nazioarteko 112 sari eskuratu zituzten. Sakandarrei dagokionez, martxoan Vic-en jokatu zen Lactium sariketean Agurainen June gazta ekoizten duten Julen Karasatorre etxarriarrak eta Nerea Luis lakuntzarrak brontzezko Lactium saria eskuratu zuten. Donostian jokatu zen Munduko Gazta Txapelketan



Gaztandegi desberdinetako arduradunek Ordiziko plazan agiriak erakusten

dominak eskuratu zituzten ibarrek honako gaztandegiek: Izurdiagako Ezkurra, Unanuko Balda,

Artola y Otros, Arbizuko Araña-Etaio eta Altsasuko Patxi Amillanoren.

» Altsasu

10 isun iritsi dira, oraingoz

Azaroaren 14ko sarekada eta hurrengo egunean herri batzarra izan zen. Guardia Civila ez zen bertaratu ezta inork agente gisa bere burua identifikatu, baina isunak iritsi dira. 800 euroko lau eta 100 euroko beste sei dira jasotako isunak; guztira 3.000 euro. Haietako bat Altsasura lanera etorritako komunikabide bateko langile batek jaso du. Isunei helegitea jartzea erabaki du.

» Lakuntza

Escolak liburutegia mustu du

Eguberritako oporretatik bueltan Luis Fuentes herri escolak liburutegia mustu du. Hori posible egin dute guraso elkarteak emandako diru-laguntza eta escolako familia batzuk egindako auzolanek. Ordu asko sartu dituzte garbiketa egiten, materialak sailkatzen eta berritzen, margotzen, argi indarra sarea, apaintzen, altzari berriak jartzen. Horri guztiari esker “espa-



Liburutegi berria mustu dute escolako ikasleek. UTZITAKOAK

zio zabal, berri eta erakargarriaz gozatzeko aukera dugu”, azaldu digute eskolatik. Aldi berean, libu-

rutegiaren berritzean parte hartu duten guztiei “esker ona” azaldu diete.

SAKANA

Amuarrain-kume gehiago, baina espeziea egoera ahulean

Nafarroako Gobernuak jakinarazi duenez, izokin-eremuko amuarrain-kumeen dentsitatea hirukoiztu egin zen 2015etik 2016ra. Hala, hektareako 1.645 arrainkume zeuden. Horrek ekarri du dentsitatea guztira 2016an 2.295 amuarrainetara igotzea hektarea bakoitzeko (2015ean, 1.183 izan ziren). Hala ere,

amuarrainaren balio osoa Nafarroan 1992an izan zen batez bestekoa azpitik jarraitzen du (% 20). Sakanari dagokionez, Arakil eta Larraun ibaiek arrainkumeen ekoizpenean “nahiko” bat dute. 1.872 hektareako, gutxienekoa 100 denean. Baina helduen eta gazteen dentsitatea ahula edo oso ahula izaten jarraitzen du. Amuarrain gazteen kasuan hektareako, gutxienez, 600 bat egon beharko lukete eta 457 daude. Helduei dagokionez, gutxienez, 200en bat beharko lukete eta 119 dira.

SAKANA

Sakandarrek ere salatuko dute

Larunbatean, 17:30ean, Bilboko La Casillatik abiatuko den manifestazioan makina bat sakandarrek parte hartuko dute

Preso dauden pertsonen giza eskubide guztiak errespetatu daitezela aldarrikatuko da Bilbon beste behin. Sakabanaketa eta urrutze politika, larriki gaixorik dauden presoaren egoera, zigoren batuketa eza eta beste salatzen diren dinamika abiarazi zuen Sarek herritarrek udazkenean. Makina bat sakandarrek egin dute bat salaketa horrekin. Eta biharko manifestazioan ere parte hartuko dute, "euskal presoaren eskubideen urraketa eta dispertsioa" salatzen.

Euskal Presoak Euskal Herriara! Giza Eskubideak, Konponbidea, Bakea! Horixe aldarrikatzen du Sare herritarrek. Manifestazioaren aurkezpenean

biharko mobilizazio erraldoia bihurtzeko" deialdia egin zuten, "salbuespeneko zerbait izan dadila, gure arestiko historiaren bila-kaera marka dezan, euskal jendar-tearen gehiengoak hainbeste desio duen bake eta elkarbizitza etorkizun baterantz". Sare-kideek biharko "inflexio puntu garrantzitsua izan dadin nahi" dute. Aldi berean, "eragile sozial, politiko eta sindikal guztiei, instituzioei, eta oro har, pertsona orori. Esfortzuak bikoizteko, borondateak gehitze-ko eta ibilbide orri komuna partekatzen deialdia da".

Udalek bat egin dute

Espainiako Gobernuaren Iruñeko ordezkariaren aurrean Sakana-ko 14 udalek, denak Ergoiena ezik, onartutako mozioa irakurri zuten.

Guztien izenean Aina Aiestarnek esan zuen: "dispertsio politika arbuaitzen dugu, zuzenean kalte-tutakoekin oinarritzko eskubideen urraketa larri izateaz aparte, senide eta lagunendako zigor kudelada". Horrekin batera, larunbatean Bilboko manifestazioan izanen direla azaldu zuten. Agerriaren ondoren, mozioak ordezkariaren aurkeztu zituzten. Bestalde, PP "udalek presoaren aldeko dinamika babestearen aurka" azaldu da.

7.910 Km

Sakanako senideek presoak bisitatzeko astero egin behar dituzten km-ak.



Arbizuarrak Sarearen #Salatzen dut kanpainarekin bat egin zuten. UTZITAKOIA

Bataz bestekoa

Epea	Familia bakoitzeko	
	Km	Gastua (€)
Astero	1.130	377,94
Hilero	4.520	1.637,75
Urtero	62.150	19.653
Altsasu / Irurtzun	115,32	115,32

25 egunetik behin

Dispertsioak istripu bat eragin du espetxeetarako bidean. 16 hildako izan dira.

Sakanako xendak aurkeztuko dira Fiturren

Heldu den asteko asteazkenetik igandera nazioarteko turismo azoka, Fitur, izanen da Madrilen. Turismoaren profesionalen mundu mailako topaketa horretan Sakanako presente izanen da bigarren urtez jarraian. Ibarren berri Sakanako Garapen Agentziak (SGA) eta Bidelagun turis-

mo elkarteak emanen dute. Bien eskutik Sakanako xendak turismo-produktua aurkeztuko dute. Ostegunean, hilaren 19an, izanen da aurkezpena. SGAko turismo teknikari Paki Urbitartek esan digunez, "gure aurkezpenak turista edo bisitariari Sakanako ezagutzeko gogoia piztea du helburu, garraio

publikoa hartuta iritsi daiteke ibarrera!"

Sakanak "ibarraren aberastunaren eta aniztasunaren isla diren paregabeko ibilbideen sarea" aurkeztu nahi dituzte. Bisitariari azalduko diete "ibilbide horiekin gure paregabeko basoetan eta milaka urte dituzten paisaietan" sartuko direla. Nabarmenduko dute ibilbide horiek kalitatezkoak direla, ongi seinaleztatuta eta egoera onean daudela. "Haien osagarri gastro-



nomia ona, landa-alojamenduak, tokiko produktuak eta turismo-jar-

duerako enpresak" daudela gaineratuko dute.

Altsasu

Yakusi Altsuko eskua bideo-lehiaketak baditu sarituak



Lehiaketa irabazi duen Altsasu institutuko taldea. UTZITAKOIA

Altsasuko hizkera sustatzeko bideo-lehiaketa antolatu zuen udalak, Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren laguntzaz. Sormen lanak Altsasuko hizkeran eginak edo Altsasuko hizkerako hitzak eta esamoldeak erabiliz egin behar ziren. Aurkeztutako lanak ikusi ondoren Katrin Gineak, Enara Intsaustik eta Arantza Floresek osatutako epai-mahaia bi sari ematea erabaki dute. Aurrenekoa, Altsasu institutu-

ko DBH4ko IKT ikasgaiko ikasleek egindako *Aitorpena* bideoarendako izan da. Horregatik, 300 euroko balea eskuratu dute, Altsasuko Dendarien Elkarteko denda batean gastatzeko. Bigarren saria Inigo Aritza ikastolako DBH3ko ikasleek egindako *Hizkeriek batzen geau* bideoarendako izan da. 4 lagunendako afaria Altsasuko jatetxe batean (100 euroko gastua guztira) da eskuratu duten saria.

Altsasu

Haur eskolako lanak aurki bukatuko dira

2016. urtea despeditu aurretik hainbat lan egin ziren Altsasuko Udalak aginduta. Izan ere, diruzaintzako gerakina 1.895.417,15 eurokoa zen eta hainbat inbertsio egiteko bideratu zituen udalak. Zatirik handiena Txiribulo haureskola berria eraikitzea bideratu du, 424.000 euro (BEZ kanpo). Lanetarako Hezkuntza Departamentuak 250.000 euroko diru-laguntza eman dio udalari. Suteagatik aseguru etxetik jasotakoaren 285.270 euroak lan horietara bideratu ditu.

Lanak aurki despedituko dira. Txiribulo haur eskola berriak 1 eta 2 urteko umeendako unitatea, 2 eta 3 urteetakoendako unitatea, unitatemistoa, bularreko umeendako unitatea eta jangela izanen ditu. Lanak egin ondoren eraikina jantzi egin behar da. 72.000 euroko aurrekontua du. Altsasuko Udalak abenduko bilkuran onartu zuen diru-laguntza deialdi batera aurkeztea, Nafarroako Mendialdea Garatzeko Toki Garapen Estrategia Parte-hartzailearen barruan Europako FEADER funtsak eta Nafarroako Gobernuak eskaintzen dutena. Onartuz gero, inbertsioaren erdia diru-lagun-



tzarekin estaliko luke udalak. Bestalde, ilbeltzean herriko hainbat kaletan ibilgailuen abiadura motelteko murriztaileak jarriko dira. +www.guaixe.eus

asi

areta eta orientazio psikologikorako zentrua

Arantxa Sueskun Igoa
PSIKOLOGOA
PSIKOTERAPEUTA

Elkargokide-zk.: N-0806

Urbasa kalea 15, behea
31800 - Altsasu (Nafarroa)
669 367 422

Etixerako aseguroak

Zure etxea dena delakoa izanda ere

Konfiantzazko aseguratora orokorra!

JOSE ANTONIO IMAZ PRIM

948 563 354
jimazpr@mapfre.com
San Juan 48 · ALTSASU






Tanatorios
IRACHE
aniversario

“Betidanik”

948 197 070
@Grupolrache
Grupolrache
www.tanatoriosirache.es

 **Dionisio Flores Lakuntza**

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak. Agur, osaba!
Zure ilobak

 **Juan Moran Pascasio**

Ahazten ez zaitugun zure lagunak.
Pepa eta Perón


 **Miguel Angel Ruiz Santamaria**


(Gure lankide Edurneren aita)
Dastatu eguzkiaren argia zauden lekutik.
Sakanako *æk*

 **Txomin Leïñena Isasti**



Ez nau izutzen baratztikan azken loreak biltzeak, muga guztien arrazoi bila arnas gabe ibiltzeak, arratsaldeko argi betera zentzu denak umiltzeak, amets beteko loa baitakar behin betirako hiltzeak.
Loli, Joxe Mari eta familia guztia

Juan Moran Pascasio


Lagun bat

 **Txomin Leïñena Isasti**

Atsedetik hartu gabe, lana eginaz goaz aurrera kate horretan denok batera, gogorki loturik gaude...
Portuko okindegiko lankideak

 **Txomin Leïñena Isasti** 

<p>Aita, urtea etorri den bezala, Zu gure albotik joan zara. Utzi duzun hutsune hau Ez da sekula beteko,</p>	<p>Baina zaude ziur, Ez dela gure bizitzako Egunik pasako zure Indarra eta sendotasuna Gure bihotzetan egon gabe.</p>	<p>Zuk erein eta irakatsitakoa Ez dugu ahaztuko, Gure argia izan zara eta izango zara. Zu bezalako aita</p>	<p>bat izateak Satisfakzioz betetzen gaitu. Mila esker guztiagatik!! Beti gure bihotzetan. Zure familia.</p>
--	---	---	--

Familiak eskerrak eman nahi ditu egun hauetan jasotako elkartasunagatik. Azken agurra, bihar larunbata 14, Urdiango udaletxean emango zaio, arratsaldeko 17:00etan. (Publikoa)

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00ak arte jasotzen ditugu. Euskara hutsean argitaratuko dira.



Bidali mezua eskelak@guaixe.eus-era edo hots egin 948 564 275 telefonora

guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**

ASTEKARIAN: Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 11€+ BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75. Posta elektronikoa: iragarki@guaixe.eus

HIGIEZINAK

ETXEBIZITZAK

ALOKATU

Lakuntzan gela bateko apartamentua alokatzen dut, herriko etxe batean dago. Tel 679 50 54 64 Itziar.

OPATUTAKOAK/ GALDUTAKOAK

OPATUTAKOAK

Altsasuko Udaltzaingoak Altsasun galdutako gauza hauek ditu: diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

OHARRAK

Euskaldun bat euro bat. Nafarroako erresumakoa izan zen Baigorriko Etxaizia gaztelua euskaldunentzat erreskuratu nahi da. Nafararren eta euskaldun guztien etxea izan dadin. Gure kultura, ekonomia, historia eta mugaz gaindiko harremanak antzinarazteko gunea bizia. Informazioa www.euskaldunbateurobat.com.

Etxarri Aranazko irakurle taldea. Hurrengo hitzordua: ilbeltzaren 26an, ostegunean, 19:00etan liburutegian. Jexuxmari Zalakin Garaikoetxearen "Kartzelako kronikak" liburua ariko dira.

GoiEner Iruñean. Landarek utzitako lekuan, Joaquin Beunza, 9 behea, Errotxapean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara etor zaitezke informazioa

jasotzera, zalantzak argitzera, ekarpenak egitera...

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduerara sartzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es.

Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu, urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu. Informazio gehiago amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com edo amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza, euskonews@euskonews.com, 943 32 22 94.

Enplegarritasuna hobetzeko bitartekaritza eta aholkularitza zerbitzua. Sakanako Enpresari Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa. www.guaixe.eus.

IKASTAROAK

Album ilustratu bat sortzeko helburu duen lantegia. Otsailak 11, larunbata, 10:30 - 13:30 Arbizuko liburutegian. Izen-ematea: Arbizuko liburutegian otsailaren 3ra arte, 948 017 777 edo liburutegi@arbizu.eus

JAIOTZAK

- **Badrdin Missaoui Missaoui,** abenduaren 11n Altsasun.
- **Karumou Camara,** abenduaren 11n Altsasun.
- **Oier Garcia Carrillo,** abenduaren 16an Altsasun.
- **Nahikari Uharte Rabaz,** abenduaren 23an Uharteko Arakilen.
- **Awa Mbaye Lo,** abenduaren 24an Olaztin.
- **Daiana Cardoso Perez,** abenduaren 24n Altsasun.
- **Asier Fernandez Rodriguez,** abenduaren 27an Irurtzunen.
- **Uxue Peña Zubia,** abenduaren 28an Altsasun.
- **Jare Matias Asurmendi,** abenduaren 30ean Altsasun.
- **Daniela Maialen Jimenez Jimenez,** abenduaren 30ean Altsasun.
- **Marc Urretabizkaia Pozueta,** ilbeltzaren 2an Altsasun.
- **Oskia Ondarra Lopez de Zubiria,** ilbeltzaren 2an Bakaikun.

HERIOTZAK

- **Leire Gallego Perez,** ilbeltzaren 6an Altsasun.
- **Juan Moran Pascasio,** abenduaren 21ean Altsasun.
- **Jesus Saralegi San Julian,** abenduaren 21ean Lakuntzan.
- **Dionisio Flores Lakuntza,** abenduaren 27an Olaztin.
- **Martin Otermin Balda,** abenduaren 28an Altsasun.
- **Lorenzo Martin Lorente Martinez,** abenduaren 28an Altsasun.
- **Jose Antonio Mazkianar Urizar,** abenduaren 29an Altsasun.
- **Txomin Leïñena Isasti,** ilbeltzaren 8an Urdiainen.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

Atletismoa



Beunza, ezkerrean. UTZITAKOA

Izaskun Beunza 5.a Nafarroako Kros Laburrean

Nafarroako Atletismoko korrikalari onenak Burlatako Krosean lehiatu ziren igandean, aldi berean Nafarroako Kros Laburreko Txapelketa zenean. Emakumezkoetan Maitane Melero nagusitu zen (14:09). Beste Iruña taldeko Izaskun Beunza olaztiarrak lasterketa bikaina egin zuen eta Burlatako proban zortzigarrena sailkatu zen (15:49), Nafarroako Txapelketa bosgarrena.

ASTIZ ETA MUNARRIZ

Gizonezkoetan Javier Nagore izan zen irabazlea eta Nafarroako txapeladuna (12:11). Beste Iruña taldeko Mikel Astiz ihabartarra 72.a sartu zen helmugara (14:54), Nafarroako Txapelketa 70.a, eta Aritz Munarriz etxarriarra 73. postuan sartu zen (14:57), Nafarroako Txapelketa 71.a.

MAIZA 17.A LARRAGAN

Igandean Larragako Erregeetako Krosa (7,4 km) jokatu zuten 215 korrikalari. Calatayudeko Said Aitaddik irabazi zuen bosgarren urtez jarraian eta errekor berria ezarrita (21:19). Sakandarren artean Juan Luis Maiza etxarriarra 17.a sartu zen helmugara (27:59), Jorge Iradi 30.a (28:56), Mikel Lakuntza 33.a (29:23) eta Luis Flores 79.a (32:12).

Aizkora



Lehiatu ziren lau aizkolariak.

Sakanako Aizkora Txapelketa Resanorendako

Abenduaren 24an Sakanako Aizkora Txapelketa jokatu zen Etxarri Aranatzen. Juanjo Erdozia eta Goizeder Beltza etxarriarrak, Iban Resano dorrobarra eta Iker Gorriti uhartearra lehiatu ziren. Kana erdiko bat, 60 ontzakoa, 70 ontzakoa eta 80 ontzakoa erdibitu behar izan zituzten eta Iban Resano izan zen txapelduna.

Pilota

Bakaikoa: "Debutarekin oso ilusionatuta nago"

Bakaikoa bihar debutatuko du Asegarcerekin, Labriten, Zilarrezko Binakako Txapelketa. Julen Martija arakildarrak ere Zilarrezko Binakakoan parte hartuko du

Aspek eta Asegarcerekin ilbeltzaren 3an aurkeztu zuten Zilarrezko Binakako Txapelketa. Txapelketa aurkeztearekin batera sorpresa iritsi zen, Asegarcerekin aurkezpen hori baliatu baitzuen Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarra aurkezteko. Aurkezpenaren egunean bertan sinatu zuten bi aldeek kontratua. Eta, hain zuzen, Zilarrezko Binakakoan debutatuko du Joanes Bakaikoa, bihar, larunbatean, 17:45ean Iruñeko Labriten hasiko den jaialdian (ETB1).

Bi sakandar: Martija eta Bakaikoa

Aspe eta Asegarcerekin launa bikote hartuko dute parte 2. Mailako Binakako Txapelketa, Zilarrezkoan. Gaur, ilbeltzaren 13an hasiko da lehia eta, itzuli bakarreko ligaxkaren ondoren, lehen lau bikoteak finalerdietarako sailkatuko dira. Finalerdiak ere ligaxka bidez jokatu dira eta apirilaren 2an jokatu da finala.

Asperen lau bikoteak Errandonea-Martija, Elordi-Erostarbe, Ugalde-Martinez eta Dario-Jaunarena dira. Julen Martijak Errandonearekin osatuko du bikoa. Astelehenean sartuko dira lehia, Tolosan, eta Elordi eta Erostarbe izango dituzte aurkari.

Asegarcerekin lau bikoteak, aldiz, Bakaikoa-Ladis Galarza, Laso-Iturriaga, Peña-Salaberri eta Arteaga-Erasun dira. Txapelketakoa izango da Etxarriko Asegarcerekin jokatu duen lehen partida, bihar, Iruñeko Labriten. Ladis Galarzarekin osatuko du bikoa Bakaikoa eta Peña II.a eta Salaverri izango dituzte aurkari.

Sakandarrak Zilarrezko Binakakoan

Peña II-Salaverri / Bakaikoa-Ladis Galarza (larunbatean, 17:45ean, Labriten. ETB1)
Elordi-Erostarbe / Errandonea-Martija (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)

Zabaleta eta Ezkurdia elkarren kontra etzi Logroñon

Zabaleta Erik Jakarekin arituko da, Elezkano lesionatuta baitago. Ezkurdia, aldiz, Merino II. arekin Aurreko ostiralean Urrutikoetxeari eta Imazi 16 eta 22 irabazi zieten Danel Elezkanok eta Jose

gertutik >>

Joanes Bakaikoa
Bihar debutatuko duen pilotaria

Non hasi zinen pilotaka?

Iruñeko San Juan taldean, 6 urterekin. Urte asko pasatu ditut Donibanen. Eta ordu asko eman ditut bertako frontoian, Etxarriko frontoian, Lizarragako frontoian, aiton-amonak bertakoak direlako, eta Alliko frontoian, ama bertakoa dudalako.

San Juanetik Doneztebeko Errekara egin zenuen salto.

Donibanen, kadete mailaraino, entrenatzen genuen Unai Lasok, orain profesionala dena, Julen Martijak eta Medinak. Bizpahiru urtez elkarrekin entrenatu genuen. Antzeko maila genuen, gure arteko pike sana, eta gustura entrenatzen genuen. Errekako Patxi Ordokik deitu zigun, ea bertara joan nahi genuen, Donibanerekin hainbat txapelketatan ezin ginelako aritu, Berria Torneoa eta Interpueblos edo Herrien Arteko Txapelketak, tartean. Horrela, Errekara joan nintzen, baina ez nuen gehiegi nabaritu, Donibanen jarraitzen nuelako entrenatzen, eguneroko martxan, Laso, Martija eta Medinarekin. Kantxatik kanpo ere harreman ona daukagu.

Afizionatuen mailan palmares ikusgarria duzu. Nafarroako txapelduna, Espainiako txapelduna, eta 2016an, Errekarekin Nafarroako eta Euskal Herriko Herriz Herriko txapelduna izan zara eta Berria Torneoa irabazi duzue.

Bai, urte ona izan da, Biarritzen ere Munduko Esku Pilota Txapelketako binakakoa irabazi nuelako, Sanchezekin.

Horretaz gain, ETB Enpresen Torneoa irabazi zenuen Erasunekin. Hor hasi ziren zurrumurruek, profesionaltasunaren bidea zabalduko ote zitzaizun, Asegarcerekin harremana bazegoelako, ezta?

Javier Zabaletak, partida arraro xamarrean. Erdialdetik aurrera agintea hartu zuten Aspekoe eta txapelketako euren 3. puntua lortu zuten. Tamalez, Elezkano lesionatu egin zen, eskuin orkatilako lotailu bat hautsita du, eta igandean Erik Jakak hartuko du bertokia. Joseba Ezkurdiak eta David Merinok Olaizola II.a eta Untoria zituz-



Noizbehinka joaten nintzen Asegarcerekin entrenatzera, baina beste pilotari batzuek bezala. Irailtik aurrera astero joaten nintzen entrenatzera eurekin, gero eta gehiago, Tolosan. Eta gustura sentitzen nintzen. Pixkanaka badirudi hobetu dudala eta debutatzeko aukera eman didate.

Ilbeltzaren 3an 2. Mailako Binakako Txapelketa aurkeztu zuten, Zilarrezkoa, eta argazki erdi-erdian zu zeunden. Ekitaldi berean iragarri zuten Asegarcerekin kontratua sinatu duzula eta txapelketa honetan debutatuko zenuela. Hau ate handitik sartzea al da?
Ohikoena jaialdi batean debutatzea da. Niri txapelketa debutatzea tokatu zait baina uste dut ez dela ez hobe ez okerrago. Ezberdina da. Akaso hobe izan daiteke, horrek astero partida bat izango dudala ziurtatzen didalako. Alde ona begiratu behar da.

Nola harrapatu dizu debutak, espero zenuen?

Niretzat sorpresa izan da une honetan debutatzea. Uste nuen berriek txapelketa antolatuta zutela eta, agian, gauzak ongi eginez gero, beranduxeago debutatzeko aukera izango nuela. Baina azkarago tokatu da eta ni ilusio han-

diarekin nago.

Nola zaude?

Urduri ez. Agian gero jarriko naiz, baina orain disfrutatzeko gogo handiarekin nago.

Nola definitzen duzu zure jokoa? Nolako aurrelaria zara?

Ez naiz kriston indartsua den aurrelari bat, indar handikoa, baina horri erantzuten saiatzen naiz aurreko teknikoagoa izaten. Saiazen naiz aurrean tantoa nahastu, angeluak bilatzen, eta aukera dudanean pilotak gozatzeko.

Gertukoek zer diote?

Familia, lagunak, herritarrak... asko poztu dira eta niri poz handia ematen dit berriek pozik ikustea. Labrit betea egongo da, egia esan.

Ladis Galarza izango da zure bikoa. Zer moduz berarekin?

Kriston indarra dauka, kolpe handia. Ea ongi konpontzen garen eta elkarren artean ongi ulertu.

Zilarrezko Binakako Txapelketa nola ikusten duzu?

Txapelketa nahiko irekia dago. Gehienok sartu berriak gara, oso gazteak, eta irekia ikusten dut.

Zorterik onena opa dizugu!

Milesker.

daude, Elezkano II.a-Zabaleta eta Ezkurdia-Merino II.a tartean.

Sakandarrak elkarren kontra Igandean, Logroñoko Adarragan (17:45ean, ETB1) Ezkurdia eta Merino II.aren kontra ariko dira Elezkano ordezkatu duen Jaka eta Zabaleta. Laugarren puntu garesti hori eskuratzea dago jokoan eta partida ikusgarria espero da.

Txirrindularitza

Urtasunek zuzendari gisa debutatuko du Ukyorekin

Europar taldearendako egutegi ona lortzen eta beharrezko azpiegitura prestatzen buru-belarri dabil urdiaindarra

Pablo Urtasun Perezek (Urdiain, 1980) aurreko urtean zintzilikatu zuen bizikleta. Baina urte berriak asmo berriak ekarri dizkio. Bizikleta bolantearekin ordezkatuko du, Team Ukyo talde japoniarreko zuzendaria izango baita.

Team Ukyoko txirrindularia izan zen urdiaindarra 2015 urtean. Nahiz eta bertan jarraitzeko aukera izan –orduan ere zuzendari izateko proposamena egin zioten–, 2016an Funvic Soul talde brasildarrera joan zen, ustez Europako egutegiko proba gehiagotan arituko omen zelako. Ez zen hala izan eta txirrindularitza uztea erabaki zuen. Baina beti harreman ona izan du Team Ukyorekin, eta bertatik etorri zaio talde japoniarrara zuzentzeko proposamena.

Ukyo talde kontinentala da. Japoniako probetan aritzeaz gain, aurten Europako egutegiko probatan lehiatzea da bere asmoa. Europako egutegia izango du ardatz Urtasunek. Europako egutegi osoa egingo du eta soilik 20 egun emango ditu Japoniako Tourrean eta Kumanon. Nonbait, bertan parte-hartzea eskatu duten



Urtasun, Ukyoko txirrindularia zenean.

proba gehienetan aritzeko gonbidapena jaso du Ukyok eta taldeak beharko duen azpiegitura guztia –autoak, auto karabanak, kamioiak, hotelak, hegaldiak...– prestatzen ari da urdiaindarra.

Valentziako Itzulian

Ukyo taldearekin zuzendari moduan otsailaren 1etik 5era debutatuko du Urtasunek, Valentziako Itzulian. Zornotzan, Gaztela Leonen, Asturiasen, Ordizian eta Getxonariko da taldea eta zenbait probaren konfirmazioaren zain daude.

Txirrindulari japoniarrez gain, Egoitz Fernandez, Jon Aberasturi, Salvador Guardiola, Benjamí Prades, Rodrigo Araque eta Nathan Earle izango ditu bere agintuetara urdiaindarrak.

Futbola

Lorea, Osasunarekin



Aitor Lorea olaztiarrak Osasuna taldearekin debutatu zuen ilbeltzaren 3an Sadarren jokotutako Errege Kopako final zortzirenetako joaneko partidari. Caparrós entrenatzaile ohiak emandako aukera baliatu zuen olaztiarrak, eta Fuentes ordezkatu zuen 77. minutuan.

Bere azkartasuna eta kalitatea erakusteko aukera izan zuen eta itxura ona eman zuen, baina taldeak 3 eta 0 galdu zuen. "Nire ametsetako taldearekin debutatu izanagatik pozik nago, baina emaitzagatik eta zaleengatik penatuta" azaldu zuen olaztiarrak.



Gabonetako Torneoek utzitakoa



Preferente mailan Etxarri Aranatzek irabazi zuen I. Gabonetako Torneoan. UTZITAKOIA

Altsasu, Etxarri eta Lagun Artea klubetako taldeek parte hartu zuten SDA-ko I. Gabonetako Futbol Torneoan

Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) I. Gabonetako Futbol Torneoan antolatu zuen abenduaren 23an eta 24an, Dantzalekun. Erantzunarekin kontentu daude anto-

latzaileak. "Jende asko hurbildu zen Dantzalekura eta, gainera, talde guztiak oso pozik zeuden. Asmoa hemengo taldeekin zer-bait egitea zen eta lortu dugi" azaldu digu SDA-ko futbol koordinatzaile Gorka Paskuak.

Olaztin Pamplona garaile

Olaztiko Sutegi klubak benjamin mailako I. Olaztiko Eguberrietako Areto Futboleko Torneoan antolatu zuen abenduaren 30ean. Sutegik, Alipendik, Txantrea B-k, Txantrea A-k, Xotak eta Pamplonak jokatu zuten. Finalean Txantrea A-k eta Pamplonak berdindu zuten eta penaltietan Pamplona nagusitu zen.

I. Gabonetako Futbol Torneoko emaitzak

- **Erregional mailan:** 1.Etxarri. 2.Altsasu. 3.Lagun Artea.
- **Jubenilen mailan:** 1.Etxarri. 2.Altsasu. -Kadeteen mailan: 1.Lagun Artea. 2.Altsasu. 3.Etxarri.
- **Haurren mailan:** 1.Lagun Artea. 2.Altsasu 1. 3.Etxarri. 4.Altsasu 2.
- **Kimuen mailan:** 1.Lagun Artea. 2.Tipi Tapa. 3.Sutegi. 4.Kaixo.

Frontenisa

Ziordiko frontenis jokalarionenak



Ziordiko II. Frontenis Lehiaketa jokatu da Gabonetan. Finaleran, gazteen mailan, Naroa Otxoak eta Naroa Barriolak 25 eta 22 irabazi zieten Xabier Bengoetxeari eta

Aimar Garciari. Eta helduen mailan, Jorge Azanzari eta Ruben Izkori tanto bakar baten aldearekin irabazi zieten Jon eta Joseba Berjerak, 24 eta 25.

Pala

Emakumezko palista txapeldunak



Txapelketako finalista guztiak, talde argazkian. UTZITAKOIA

Abenduaren 30ean jokatu ziren XI. Sakanako Gure Pilota Emakumeen Pala Torneoko finalak. Pala zaleek gozatu ederra hartu zuten, final ikusgarriak izan baitziren.

Mank-ek antolatzen du torneo, Nafarroako Pilota Federazioaren, Gure Pilota klubaren eta Etxarri Aranazko Udalaren laguntzarekin. Egun, emakumeen pala-

ko torneo prestigiotsuenetako bat da hau. Helburua emakumezkoen goi mailako txapelketa antolatzeta da, eta, aldi berean, palista txikiekin egiten den lana erakustea.

Areto futbola

Espainiako Koparako sailkatu da Magna Gurpea

Asteartean Peñiscolari 3 eta 1 irabazteari esker, Magna Gurpea Xotak martxoaren 9tik 12ra bitartean Ciudad Realen jokatu du den Espainiako Koparako sailkatzea lortu du. Izan ere, ligako lehen bueltan sailkatzen diren lehen 8 taldeek lortzen dute Koparako sailkatzea, eta Magna Gurpea 8.a da sailkapenean. Gaur, ostiralean, Magna Gurpeak Cartagenaren kontra jokatu du Anaitasunan, 20:30ean. Bestalde, aipatzekoa da abenduaren bukaeran Bartzelonaren kontra jokatu duen partidan Roberto Martilek klub berdearekin bere 300. partida jokatu zuela.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

PREFERENTE MAILA. 1. multzoa

14. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - BURLADÉS 0
ETXARRI ARANATZ 4 - BERRIOZAR 0
 Urteari hasiera bikaina eman diote Lagun Artea eta Etxarri Aranatzek. Lakuntzan, Lagun Artea 2 eta 0 irabazi zion Burlades taldeari. Lehen zatian bi taldeak pare pare ibili ziren eta 2. zatian, aldiz, lakuntzarrak izan ziren onenak. Arbitroak ez zuen Burladeskoen esku argi bat ikusi, baina tarte batera Garikoitzek Lagun Artea aurreratu zuen. Eta handik gutxira bigarrena sartu zuen Anderrek. Arbitroak ere Lagunen beste gol bat baliogabetu zuen. Baina 2 eta 0 irabazita, preferenteko sailkapenean bigarrenak dira lakuntzarrak. Bestalde, San Donato zelaian gol festa ederra ospatuz hasi zuten urtea etxarriarrek. Jurgik Etxarri aurreratu zuen berehala eta segidan Berriozarkoek aukera asko izan zituzten, huts egin zituztenak. Bigarren zatian garaipenaren bila ibili ziren gorritxoak eta Saezi (2) eta Alaini esker 4 eta 0 irabazi zuen Etxarri. Sailkapenean ere postuz gora egin dute etxarriarrek eta egun zazpigarrenak dira.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	31 p
2. Lagun Artea	26 p
7. Etxarri Aranatz	20 p

Asteburuko jardunaldia
BERRIOZAR - LAGUN ARTEA (Igandean, 15:30ean, Berriozarren)
ARROTXAPEA - ETXARRI ARANATZ (Igandean, 15:30ean, El Iratín)

ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa

Aurreko astean ez zen erregional mailako jardunaldirik jokatu. Asteburu honetan 13. jardunaldia egongo da jokoan eta Altsasu lehiara itzuliko da.

Sailkapena >>

1. San Jorge	27 p
6. Altsasu	14 p

Asteburuko jardunaldia
ALTSASU - LAGUNAK (Larunbatean, 16:30ean, Dantzalekun)

EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA

12. JARDUNALDIA

BETI KOZKOR 0 - ALTSASU 4

Sailkapena >>

1. Osasuna	31 p
12. Altsasu	9 p

Asteburuko jardunaldia
ALTSASU - NAFARROAKO UNIBERTSITATEA (Igandean, 16:30ean, Dantzalekun)

ELOMENDIKO TXAPELKETA

13. JARDUNALDIA

ZALDUA 3 - ROCA 1

Sailkapena >>

1. Unziti	34 p
4. Zaldua	27 p

Asteburuko jardunaldia
ZALDUA - OROBIA (Larunbatean, Lizasoainen)

Futbola

Sakanako Futbol Topaketak: kimuen 7. jardunaldia jokoan

Sakanako Futbol Topaketetan igandean kimuen mailako 7. futbol jardunaldia jokatu da Lakuntzan, Olaztin eta Urdiainen.

Sakanako Futbol Topaketak. Kimuen 7. jardunaldia, igandean

- 12:00etan:** Tipi Tapa - Lagun Artea (Lakuntzan)
- 11:00etan:** Etxarri - Sutegi (Olaztin)
- 12:00etan:** Kaixo - Urdiain (Urdiainen)

Mendia

Urteari agur eta ongi etorri, mendian



Irritzundarrek Trinitatean despeditu zuten urtea. UTZITAKOIA

Sakanako mendizale askok 2016 urteari agurra mendian eman zioten. Esaterako, Irritzungo Iratxo eta Pikuxar taldeetakoak Ergara joan ziren abenduaren 31n, Lakuntzako Zabalartekoak Lakuntzakoarrira eta Altsasuko Mendigoizaleaketa Olaztikoko Sutegikoak Aizkorrira.

Eta 2017 urteari ongi etorria

emateko ere mendian bildu ziren mendizaleak. Errege egunean Beriainerajo zuten Sakanako Mendizaleak taldekoek. Eta ilbeltzaren 8an, Altsasuko Mendigoizaleak taldeak antolatuta, Bargagainen bildu ziren altsasuarrak. Goian hamaiketako eta festatxo ez zen falta izan. Bildutakoek Altsasuko auzipetuak gogoan izan zituzten.

Irristaketa



Yerai Goikoetxea eta Oier Ormazabal podiumean. UTZITAKOIA

Lapuente eta Goikoetxea txapeldun San Silbestrean

Gazteen mailan Iratxe Lapuente eta Yerai Goikoetxea izan ziren txapeldunak eta Oier Ormazabal bigarrena

Abenduaren 31n Iruñeko Baiona Etorbidean San Silbestre Irristaketa proba jokatu zen. Irristalari sakandarrek primerako maila eman zuten, gazteen mailan zeuden 6 sarietatik 3 Sakanara etorri bai-

tziren. Emakumezkoetan Sakanako Iratxe Lapuente ziorriarra izan zen txapelduna eta, gizonzkoetan Yerai Goikoetxea Garzandia etxarriarra. Oier Ormazabal Ijurrak etxarriarra bigarrena sailkatu zen.

Irristaketa denboraldiari ilbeltzaren 28an emango zaio hasiera eta urrian despedituko da.

Atletismoa

Omenaldiz jositako San Silbestre jendetsua Altsasun



Auzipetuak eta aurten zendutako Goizeder Azazeta izan zituzten gogoan Altsasun.

Guztira 578 korrikalarik hartu zuten parte Altsasun

Ez daudenak eta daudenak, guztiak izan zituzten gogoan 38. Altsasuko San Silbestre-Mario Lopez de Uralde Memorialeko antolatzaleek, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Sakanako Triatlói Taldeak.

148 neska-mutikok hartu zuten parte kategoria txikiko probatan eta 430 korrikalarik probanagusia

(4,6 km). Sergio Garcia de Eulate eta Izaskun Beunza izan ziren txapeldunak.

Proban Altsasuko atxilotu eta auzipetuak izan zituzten gogoan eta aurten zendutako Goizeder Azazeta Pelaez korrikalari eta triatlói ohiari omenaldi xumea egin zioten, baita Juantxo Azurmendi eta Mikel Lakuntzari ere. + www.guaixe.eus eta www.dantzalekusakana.com

Txirrindularitza

105 txirrindularik despeditu zuten urtea Urbasan



Ordu aldaketa arrakastatsua izan zen. Aurten eguerdian burutu zen proba.

Urtea despeditzeko beste klasikoetako bat da Sociedad Deportiva Altsasuak (SDA) antolatzen duen San Silbestre. Aurten 34. edizioa zuen Altsasutik abiatuta Urbasako portua igotzea helburu zuen txirrindularitza probak. Nobedade moduan, eguerdian jokatu zen, arratsaldean beharrez. Aldaketak arrakasta izan zuen, txirrindulari gehiagok hartu baitzuten parte, 105 guztira. Azkarrena Patxi Cia izan zen.

laritza probak. Nobedade moduan, eguerdian jokatu zen, arratsaldean beharrez. Aldaketak arrakasta izan zuen, txirrindulari gehiagok hartu baitzuten parte, 105 guztira. Azkarrena Patxi Cia izan zen.

Saskibaloia

Abenduaren 30n izan zen, Juanjo Marin Saskibaloia Memorialarekin batera

Saskibaloia Taldeak, CBASK-ek, Juanjo Marin Saskibaloia Memoriale antolatu zuen abenduaren 30ean Zelandin. Altsasu Saskibaloia Taldeko jokalariek izandako Marinen senitartekoei esker ona adieraztearekin batera, triangularra jokatu zuten CBASK-ek, Araiako Alipendik eta Nafarroako selekzioak.

Ekitaldia 2016-2017 denboraldirako CBASK-ek dituen taldeak aurkezteko probestu zuten. Aurten 105 lizentzia ditu CBASKek. Ditzuten taldeak ondokoak dira: benjamin

CBASK-ek bere taldeak aurkeztu ditu



N. MAZKIARAN

taldea, bi aurremini talde-emakumezkoena eta gizonzkoena, emakumezkoen mini taldea, gizonzko-

en haurren aurreko taldea, emakumezkoen haurren taldea eta gizonzkoen eta emakumezkoen kade-

te taldeak ditu. Horretaz gain, junior mailako emakumezkoen taldea eta gizonzkoen senior taldea daude.

Non erabili

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berri proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisia doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarkako sesioetan %5eko deskontua.

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10eko deskontua kontsul-ta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



BAZKIDETZA 50€
948 564 275

kultura >>

Trikitixa jaialdia, omenaldia eta guzti

Jaialdian parte hartu zuten musikari guztiek elkarrekin joz despeditu zen larunbatean Nafarroako Trikitixa Jaialdiaren hirugarren edizioa, Altsasuko Iortian. Familiako bikoteekin edota hirukoteekin prestatu zuen aurtengo egitaraua Nafarroako Trikitixa Elkarteak. Oholtzatik

Narbarte anai-arrebak, Laja aita-semeak eta Aritz, Etxabe anaiak, Lasa ahizpak, Elustondo anai-arrebak, Alkorta anai-arrebak eta Enaitz (semea) eta Etxaniz anaiak pasa ziren eta bakoitzak hiruna pieza jo zituen. Jaialdia txukuna izan zen. ETBk grabatu zuen.

Telleria anaiek gidatutako saioa

Patxi Agirre arbizuarraren bost ikasle ohiren kalejira batekin despedituko zela zirudien. Haiek ohol-tzara igo eta trikiti elkarteko kidearen omenez aureskua jo eta dantzari batek dantzatu zuen. Bukieran txapela jantzizion. Nafarroa trikitixa ekartzearen "errudun" izateagatik omendu zuten Agirre, hala azaldu zuten behintzat aurkezleek. Altsasuko erreferentziaz beteta zegoen eszenatokian musikari guztiek elkarrekin joz despeditu zen.



Etxeberria Iruñeko literatur-lehiaketan saritua

Altsasuarrak bigarren urtez jarraian narrazio laburreko sailean saria eskuratu du

Iruñeko Udalak sortzaile berriendako literatur lehiaketako 26. edizioako sariak abenduaren 20an banatu zituen. Aurreko urtean bezala sarituen artean Izaskun Etxeberria Zufiaurre zegoen. Sortzaile altsasuarrak narrazio laburren sailean bigarren saria eskuratu zuen *Ura ere gorria* lanarekin. Etxeberria gerra ondorengo Altsuondo herriko neskatila baten begietatik kontatzen du. 1939 urtean kokatutako narrazioak neskatilaren eguneroko pasarteak eta narrazioa uztartzen ditu, bien uztarketak aurrera eramanez irakurlea.

Idazleak garai hartan jazotako makina bat aipamenekin janzten du narrazioa: etxeetan zegoen eska-



sia, hezkuntza, irakasleen egoera, soldadu-langileen batailoak, lan behartuak, militarrek, gerra, deserrria, fusilatzeak, haurren lana eta beste. Askok eta asko Katali neskatikoaren eta bere anaiaren begietatik ikusia. Epaimahaia horrekin batera idazlanaren "polifonia

eta egitura" nabarmendu ditu. Etxeberria historiakogai eta gertakarietan oinarritutako beste narrazio batekin lortu zuen 2015eko saria ere. Orduko hartan XVIII. mendeko Burundako bidelapurren gertakariekin western itxurako abentura narrazioa ondu zuen.

Nano-literatura

Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak euskaltegi-tako ikasleei eta Mintzakide programako kideei zuzendutako nano-ipuin lehiaketa antolatu du. Sakandarrak parte hartu dezakete bakarrik lehiaketan. Bakarka sortutako lanak onartuko dira soilik. Idazleen euren nano-ipuinak sortzeko gutxienez 100 hitz eta gehienez 150 erabili ahaliko dituzte. Euskara hutsean idatzitako testuak izan beharko dute, argitaratu gabeak, jatorrizkoak eta beste edozein lehiaketan saririk jaso gabeak izan dira. Euskara Zerbitzuti gaztigatu dutenez, indarkeria, sexismoa,

arrazakeria edo bestelako esku-bide urraketak sustatzen dituzten lanak ez dira onartuko. Zerbitzuak berak aukeratuko du epaimahaia eta haren epaia apelaezina izanen da.

Martxoak 17ra arte

Lanak egun horretara arte aurkeztu daitezke. Nano-ipuinak, pdf formatuan, euskara1@sakana-mank.eus helbidera bidali behar dira. Sorkuntza lanarekin batera egileak bere izen-abizenak, telefonoa, helbidea, e-posta eta ikasketa-maila zein diren dioen beste dokumentu batean bidali beharko du.

Helduek album ilustratuak egiten ikasteko



Helburu horrekin Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak album ilustratu bat sortzeko helduendako lantegia antolatu du. Otsailaren 11n, larunbatean, 10:30etik 13:30era izanen da, Arbizuko liburutegian. Yolanda Arrieta idazleak eta Aitziber Alonso ilustratzaileak emanen dituzte azalpenak. Mank-ek Arbizuko Udalaren laguntzaz antolatutako lantegia Nafarroako beste euskara zerbitzu batzuekin antolatutako Etxepare Saria egitasmoaren barruan dago.

izen ematea

Otsailaren 3ra arte, 948017777 edo liburutegia@arbizu.eus

bazterretik

Mar Gonzalez Ruiz de Larramendi

Artea eta paisaia argazkien aroan

Halako izenburuarekin, badirudi gaurko artikulua arteak argazkilaritza agertu zenetik gaur eguneraino izan duen bilakaeraz arituko garela. Guztiok dakigu, jada, argazkilaritzaren jaiotzarekin margolarien errealitatea harrapatze-ari uko egin ziotela eta subjektibotasunean bilatu zutela babesa. Figuratibotatik aldendu eta ohikoak ziren irudietatik urruntzen ziren kolore eta ehundurak hurbildu zizkiguten begietara. Garai hartakoak dira soberan ezagunak ditugun abangoardiak.

Argazkilariak, bitartean, kaleetara jausi ziren, gizakien eta paisaien senean ezkutatzen zenaren bila. Gero, diktatura zurrunen garaia helduko zen, eta argazkiak margo isil eta kaltegabeen eruedetara itzuli ziren berriro, esanahi politikoetatik urruntzeko saiakeran. Iraultza, giza begien mina salatzen zuen argazki batek piztuko zuen argazkilaria kaleetatik.

Baina garai hura atzean geratu zen, jada; eta, egun, argazkilaritza orokortuaren garaian murgilduta gauden zeharo. Eremu berri honetan, museoetan eskegita dagoen artearekiko harremana aldatu dela dirudi. Ezin daiteke esangalerietan dau den margolan ezagunenek eragiten duten erakarpena berria denik. Betidanik bildu da jendetza Da Vinciren Gioconda-ren edo Munchen Oihua-ren inguruan, gainerako erretratuen gainetik begiak maiz nagai igarotzen diren artean.

Baina ez naiz joera horretazari, baizik eta azken urteotan nagusitu den estreinazko harremanaz. Museoak, hirietako etxe, eraikin, izkina, eta eremu gehienentzera, argazkien esparru bilakatu dira. Hasiera batean pintura ospetsuen argazkiak ateratzeko ohitura zabaldu zen, baina gerorago argazkilaria -guztiok garelako argazkilaria, edo inor ez-,

noizbait museoetan egin ditugun argazkien baliogabetasunaz jabetuta -beste batek atera izan du lehenagokoa beraren irudi garbi eta zehatzagoa, bereziagoa...- bide berriak bilatu ditugu.

Kontenplazio hutsaz gain museoetarako motibazio baten bila, margolanen parean gure burua txertatzeari ekin diogu orduan, eta horrela argazkia bertan egongarela adierazteko froga materiala bilakatu dugu: "ni hemen egon naiz", "guztiok liburu eta telebistan ikusi duzuen koadro hau zuzenean ikusi dut".

Alde batetik, badirudi ohitura berri honek, nolabait, arte ezberdinen arteko elkarriketa bultzatzen duela. Museoetan margolanak eredu kopiatzen dituzten margolarien, eta pinturen inguruan idatzitako egiten dituzten idazleen parean, ustezko argazkilariek euren tokia aldarrikatzen dute. Baina, tamalez, aurrekoetatik urrun, azken hauek ez dute orokorrean euren idazkia edo euren margolana goratzen, baizik eta "nia", euren burua. Horrela koadro bere maila kulturalaren baieztapena bihurtzen da, edo haien edertasuna frogatzeko beste aitzaki hutsa.

Azken urteotan, aurrez aurre kokatu ordez, artearen aurrean sarri ezartzen garelaren sentazioa dut, paisaiaren aurrean, gure edertasunaz arduratuta, inguruan dagoenari erreparatu gabe.

Honek behin irakurri nuen zerbaitek ekartzen dit gogora: mutiko gazteek ezinezkoa omen dute benetakomaitasuna, ustezko maitatuaren begietan euren balioa eta xarmantasunaren froga bilatzen dutelako, barrura begiratu gabe. Agian, argazki bat atera eta gure irudia begiratu baino lehen paisaia hunkigarriaz edo gure maitatuaren aurpegiaz ohartzengaren unean, hasiko gara errealitate eta artearen edertasun zabal ulertzen eta ikusten.

Lehiaketako mailak* eta sariak

- | | | |
|------------------------------|-----------------------------|--------------|
| 1. A1 eta A2 mailetak | ikasleek har dezakete parte | Liburu sorta |
| 2. B1 mailako | ikasleek | Liburu sorta |
| 3. B2 eta C1 mailetak | ikasleendako da | Liburu sorta |

*Mintzakide programakoek duten ezagutzaren pareko mailan parte hartuko dute.

Testuingurutik ateratako materiekin sortutako eskulturak



Hilaren 30era arte astegunetan, 18:30etik 21:00etara, eta domeketan, 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko Iortia kultur gunean

Mertxe Sueskun Martinez eskultorea da. Hori jakin beharra dago Altsasuko Iortia kultur guneko *Egunerokoaz* erakusketa aretora sartu aurretik, paretetan dauden eskulturak koardroekin ez nahasteko. Eskulturek idulki edo oinarri baten gainean egon beharko lukete, baina "hain erliebe txikia izatean, materiala delikatua denez, abaraskako gelaxkak betetzen duen materiala ez dagoenez itsatsia, erortzen diren dena ateratzen da. Kaltetu egiten dira. Horregatik, eginak emanen ditut eta kitto". Horrela iritsi dira eskulturak paretatik zintzilik egotera.

Sueskunek birziklatutako materialekin lan egiten du. Egurrezko kutxak, haien barruan kartoiz egindako abaraska eta azken horrek sortzen dituen hutsune edo gelaxka batzuk material zuriz (klariona, belarriak garbitzeko kotoia, kotoia edo zigarroen filtroak) beteak. Horiek erakusgelako eskuineko paretan ikusgai daudenak. Sueskunek azaldu digunez, "mosaiko erromatarrei erparatzen diet. Eta haietan oinarrituta garatu dut estilo honetako obra. Geometria hutsa dira".

Eskuin pareta horretako eskulturek kolore gutxi batzuk besterik ez dute. Baina, koloretako kotoiekin eta kartulinekin osatutako abaraskak ere ikusgai ditu Sueskunek. Materialen kolore eta formarekin jolastendu gelaskak betetzeari. Haie-

tako batzuk kutxarik gabe, aske, daude. Makilatzeko kotoiekin sortutako ondulazioak ere ikusgai daude.

Zepiloak erabiliz sortutako eskulturak dira berrienak. Izenburu argiek bisitariari argibidea emanen diote. Norabait doanean dendetako erakusleihoak begiratzen ditu. Gogoko objekturen bat ikusiz gero erosi eta gero hura abiapuntu izanik sortzeari ekiten dio Sueskunek. Zepiloekin hala gertatu zen. Joan Brossasen omenezko eskultura erreportaje bat ikusi, omenaldia egitea erabaki eta eskuraz zituen elementuak erabiliz sortu zuen. Orratzekin, egurrezko zamau-babesen piztxoekin, egurrezko orraziak, bizarra kentzeko brotxa eta dama jokoko piezekin sortutako geometria formak, eskulturak, ere ikusgai daude.

Erdigunean

Erakusketara sartzen denari pitaz egindako eskultura batek egiten dio harrera. Egiturari buelta emanda beste hiru opatuko ditu. Metalezko egitura bat hartu eta pitarekin haien gainean lan egin du. Lan horien eredu eta bat zintzilik du, pare bat lurrean, haietako bat pita urdinez tindatuta. Paretetako kutxatxoak gogorarazten dituzten hiru kutxa handiak daude lurrean. Forma ezberdinak dituen pitaz beteak.

Kamioien filtroekin eta punta ateratako makiltxoekin osatutako eskulturek barruan duten formak begiratzera gonbidatzen dute. Donostiako Artelekuko ikastaro batean egindako egurrezko bat dago ikusgai. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Sormena pizteko gonbidapena

Haur eta gaztetxoaren artean euskarazko sormena sustatzeko asmoz deitu dira Maria Markotegi sariak. Sakana-ko Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak antolatutako sariak hori bizitokia edo ikastetxea Sakana duten ikasleei zuzenduta dago. Txikienek ilustrazioekin parte hartu dezakete, baina adin batetik aurrera poesia, komiki edo narrazioen ataletan aurkeztu ditzakete euren lanak.

Ilustrazioa

Bi adin tartetakoek parte har dezakete; alde batetik, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako eta, bestetik, 3. eta 4. mailakoak dira. Aurrenekoek Anjel Lertxundiren *Domingo Gorringo pirata* ipuina ilustratu beharko dute, banaka. Bigarrenek, egile beraren *Elefantitaren* ipuinetik abiatuta sortu beharko dituzte irudiak. Ilustrazioak A4 formatudun orrietan egin beharko dira, edozein margo edo teknika guztiak onartuko dira. Ikasle bakoitzak lan bat aurkezteko aukera izanen du eta haiek plika sistema erabiliz aurkeztu behar dira. Maila bakoitzean bina sari emanen dira, pintura zorro osatu bana izanen dira sariak.

Beste hiru aukera

Gainontzeko haurrek eta gaztetxo-



ek narrazio laburra, poesia eta komikia sailetan parte hartzeko aukera izanen dute. Hori bai, lau kategoriatan: LHko 5. eta 6. mailako ikasleena, DBHko 1. eta 2. mailako ikasleena, DBHko 3. eta 4. mailakoena eta Batxilergoak eta Erdi Mailako Heziketa Ziklotako ikasleena.

Lehiaketara aurkezten dituzten lanak originalak, aurrez saritu gabeak, argitaratu gabeak eta euskaraz sortuak izanen dira. Gaia librea izanen da. Antolakuntzak argitu du ez direla bertso paperak ametituko. Lanek ondoko luzera izanen dute: olerkietan 14 lerro gutxienez eta 40 gehienez; komikietan orrialde bat gutxienez eta 5 gehienez; eta narrazio laburretan, LHko 5. eta 6. mailako ikasleek orrialde bat gutxienez eta 3

gehienez, DBHko ikasleek 2 orrialde gutxienez eta 5 gehienez eta Batxilergo eta Erdi Mailako Heziketa Ziklotako ikasleek 3 orrialde gutxienez eta 8 gehienez.

Bete beharreko baldintzak dira: literatur lanak ordenagailuz idatzirik aurkeztuko dira, Arial letra mota erabiliko da eta 12 puntuko hizki-tamaina. Komikiak zuri-beltzean edo koloretan aurkeztuko dira. Ordenagailuz edo eskuz egin daitezke. Lanak bakarkakoak izanen dira. Ez dira taldekako lanak onartuko. Ikasle bakoitzak gehienez ere lan bana aurkez dezake sail bakoitzean eta plika sistemaren bidez aurkeztu beharko dira. Saila eta maila bakoitzeko bina sari banatuko dira.

[+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Dispertsioaren errealitateari doinuak

Zama doinuz arinduz II. Elkartasun jaialdia igandean, 18:00etan eta 20:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Etxarriko Sarek, senideek eta lagunek *Zama doinuz arinduz* musika jaialdia antolatu dute igandeko. Bigarren urtea da kontzertu-ikuskitzuna antolatzen dutena. Haren bidez presoen "sakanaketaren errealitatearen kontakizuna", salaketa egingen dute. Etxarriko zortzi presoen disperstiatuak daude eta bederatzik musikari ezagun izanen dira igandeko jaialdian parte hartuko dutenak: Zopilotes Txirriaos, La Chula Potra, Gozategi, Hutsun, Anje Duhalde, El Deseo del Doctor, Fermin Valencia,



Gorka Urbizu eta Fran eta Zuriñe. Bakoitzak bi kantu eskainiko ditu.

Preso eta iheslarien etxeratzea eskatzeko doinuak bi emanaldi berdinetan eskainiko dira Etxarri Aranazko kultur etxean: 18:00etan

(sarrerak agortuta) eta 20:00etan. Ateak ordu erdi lehenago zabalduko dira eta emanaldiak puntual hasiko dira. Horregatik, ateak emanaldia hasi baino 5 minutu lehenago itxiko dira.



Txooootx!
JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
URTARRILAREN 13TIK MAIATZAREN 7RA ARTE
txotx denboraldia zabalik

948 604 571 | 680 652 183 | ODERITZ



G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: % 96	euria: % 85	euria: % 85	euria: % 65	euria: % 25	euria: % 20	euria: % 20
Min: 5 Max: 6	Min: 3 Max: 6	Min: 3 Max: 6	Min: 3 Max: 7	Min: 0 Max: 6	Min: -1 Max: 5	Min: -2 Max: 6

: temperatura>>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	12.5	-3	93.2
Etxarri A.	11.3	-8.6	59.4
Altsasu	10	-8	93.5
Aralar	5.9	-4.7	90.5
Urbasa	-	-	-

: ilargiaren aldia>>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
19	28	4	12

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Bazkide sarituak

LAURA ARBIZU ANDUEZA (LAKUNTZA)

ERKUDEN LECEA FLORES (ALTSASU)

JOSEAN JAKA ARBIZU (ETXARRI ARANATZ)

IDOIA GOIKOETXEA GOMEZ (ALTSASU)

ILBELTZEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera. Artazako Kanpina: %10eko deskontua. Lacturale: esneki lotea. Gaztezulo: 3 hilabetez doan. Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2., 3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua. Lacturale: esneki lotea. Gaztezulo: 3 hilabetez doan. Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

>> 11 galdera

Asier Beltza

40 urte bete dituen EREIN argitaletxeko langilea

Testua: Jon Otermin Benito



Udal buletinak, aldizkariak...

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus

- 1- Nolakoa izan zen argitaletxearen sorrera?**
 Duela 40 urte sortu zen, Francoren garaian. Ez zen batere erraza izan. Mikel Laboa eta Jesus Mari Mujika zeuden, besteak beste.
- 2- Zer nolako osasuna dauka gaur egun? Ongi al dabil?**
 Bai. Berrogei urtez hor mantendu gara. Argitaletxeak orain literaturaz aparte hezkuntza ere liburuak argitaratzen ditu. Beharbada, dendetan gehien ikusten dena literatura da, baina gure punturik indartsuena testuliburuak dira.
- 3- Euskal literatura besterik ez duzue argitaratzen?**
 Ia dena euskaraz argitaratzen dugu. %95a euskarazkoa da, nahiz eta euskal literatura ez izan. Bestalde, saiakera edo unibertsitateko liburu-tekniko batzuk erdaraz ere argitaratzen ditugu.
- 4- Noiz hasi zinen bertan lan egiten?**
 Aspaldi. Aurten 30 urte egingo ditut Ereinen lan egiten.
- 5- Zer motatako lanak egiten dituzu?**
 Azkenaldi honetan, normalean sare sozialak elikatu behar ditut. Facebook orri bat edo Twitter bat edonork ireki dezake, baina zailena elikatzea da. Gainera, online dendaren mantenuaz arduratzen naiz eta, arteari dagokionez, liburuak maketatzen ditut.
- 6- Nola moldatzen zara liburu baten azala ilustratzeko?**

Zeintzuk dira irizpideak?
 Denetarik dago. Kasu batzuetan egileak proposatzen digu berezaz den marrazkilaria baten ilustrazioa azalean agertzea. Normalean ez dugu arazorik horrelako gauzak egiteko. Beste batzuk, aldiz, gure esku uzten dute nahi dugun azala egiteko. Lanak banatu egiten ditugu. Adibidez, poesia liburutan azalak oso abstraktuak direnez, hiru azal ezberdin funtzionatu dezakete. Sailka banaturiko ilustratzaileak dauzkagu eta bakoitzak berearen kargatzen da. Ez daude pertsonalaren barnean baina guretzako lan egiten dute.

7- Liburuaren idazleekin harremanik izaten al duzu?
 Bai. Normalean liburuaren argitaletxera iristen denean literaturako arduradunak irakurketa egiten du. Hortik aurrera, liburuaren zuzenduta dagoenean maketatu behar da. Gaur egun PDFak erabiltzen dira probak bidaltzeko eta hor batzuetan idazleekin kontaktuan jartzen naiz. Egileak azalarekiko ideien bat baldin badauka baita ere. Hala ere, itzulpena eta egilea ingelesa baldin bada harremana ez da ber-

dina izango.

8- Zenbatetan egon zara Durangoko Azokan saltzen?
 20 urte. Hasieran, karpia egiten zenean, lanera joateko aukera ematen zuten. Lehenengo aldiz, poz-pez joaten zara, baina bigarrenegun agian ez zara joaten eta oso jende gutxi egoten da. Orduan, erabaki genuen lan guztiak joatea.

9- Irakurzalea al zara?
 Ez naiz oso irakurzalea. Astean 15 liburu inguru nire eskuetatik pasatzen dira. Lanerako gauza oso teknikoak irakurtzen ditut. Gaur egun interneten artikulua pila bat ingelesez.

10- Zein liburu gomendatuko zenituzke?
 Sakanan bizi diren idazleen liburuak. Adibidez, Castillo Suarezek orain dela gutxi liburu bat entregatu digu. Jon Arretxeren liburuak ere ditugu.

11- Argitaletxean jarduteaz aparte, beste lanik egiten al duzu?
 Ez, horixe da nire lana.